

2018_{ko}

JARDUERA -
TXOSTENA



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

1. Vital Fundazioa	3
1.1 2018 laguntza-programa	3
1.2 Kultura, Aisialdi eta Kirol arloa	4
- Vital Fundazioa erakusketa zentroa	4
- Kultura aretoak	7
- Musika-jarduerak	8
- Historiaren sustapena eta hedapena	11
- Gure zinemaren alde egiten dugu	13
- Lehiaketak	14
- Vital Araban zehar	15
- Jaibus Vital	15
- +55 kultura programak	16
- Beste zenbait kultura-ekimen	16
- Konpromisoa kirolarekin	19
- Hitzarmenak kultura eta kirol erakundeekin	22
1.3 Gizarte-laguntza arloa	22
- Berakah harrera-proiektua	22
- Elikagaien Arabako bankua	23
- Kalteberatasun larrian dauden pertsonentzako arreta	24
- Gizarte bazterketaren aurkako beste zenbait proiektu	24
- Araba minbiziaren aurka	25
- ELAren aurkako martxa Haranan	25
- Haurren aurkako bortizkeriaren prebentzio-programa	26
- Eginaren eginez	26
- ¡Mójate– Busti Zaitzez!	26
- Araberri 17 kausa	27
- Desgaitasunari, gaixoei edo gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen lotuta diharduen elkarte-sarearentzako laguntza	27
- Vitalquiler	29
- +55 laguntza programak	30
1.4 Prestakuntza, Enplegua eta Ikerketa arloa	30
- Lanbide Heziketa	30
- Hezkuntza programak	31
- EmpleoAraba	33
- Hazia 23	34
- Bekak	34
- Ikerketarako laguntza	36
- Ekintzailtzaren aldeko ekimenak	37
- Enplegua eta lurralde oreka	38
- +55 prestakuntza programak	39
1.5 Ondare eta Ingurumen arloa	40
- Laguntza Euskarari eta Euskal Kulturari	40
- Azokak	41
- Lurralde sustapena	43
- Etxe Berdeak	44
- Arrera etxabereei	44
2. Estadio Fundazioa	45
3. Idiomas Fundazioa	48
4. Sancho el Sabio Fundazioa	50
5. Vital Eguna	53

1. Fundación Vital Fundazioa

Vital Fundazioaren xedea kultura sustatzea eta garatzea, eta zientzia, teknika eta kirola bultzatzea eta zabaltzea da. Halaber, Fundazioak laguntza, gizarte, irakaskuntza, kultura, kirol eta adinekoen aldeko ekintza programak kudeatzen ditu, gure lurraldean erakunde erreferente bilakatzeko helburuz.

1.1 2018 laguntza-programa

Vital Fundazioak, bere helburu eta balioekin koherentzian, ikuspegi solidariotik eta gaur egungotik garatzen du bere gizarte ekintza, bertako biztanleen gizarte, ekonomia eta kultura garapena bultzatuz. Bere Plan Estrategikoan aurreikusitako helburuetako batek arabar guztien bizi-kalitatea hobetzera bideratutako proiektuei laguntza eta bultzada ematea aurreikusten du. Hori guztia gardentasuna, berdintasun baldintzetan parte hartzea, eta Arabako gizarte ehuneko erakunde guztien arteko lehia askea sustatzeko konpromiso sendoarekin batera.

2018an zehar, **Vital Fundazioak Arabako gizarterako laguntza-programa** abiarazi zuen, eta **1,1 milioi euro bideratu zituen programa horretara. Hiru deialdi** egin ziren, urtean zehar banatuta -bat otsailean, beste bat maiatzean eta azkena irailean- elkarteei eta kolektiboei laguntzak eskuratzeko eta aurkeztu nahi zituzten proiektuak planifikatzeko erraztasuna emateko asmoz. Jaso ziren 313 eskarietatik, **249 erantzun ziren, % 80**. Laguntza-multzo horri esker, **Arabako 76 kolektibok** lortu dituzte lehen-dabiziko aldiz Fundazioak eskainitako lagun-

tzak. Laguntza guztietatik, 118 gizarte arloari, hezkuntzari eta enpleguari lotutako proiektuei eman zitzaizkien, 454.008 euro jaso zituzten. Era berean, ondarearekin eta ingurumenarekin zerikusia duten 58 ekimenek 212.000 euro lortu zituzten, eta kultura eta kirol arloetako 137 proiektuk 306.000 euro jaso zituzten.

Arloak	Proiektuak	Zenbatekoak
Gizartea, Hezkuntza, Enplegua eta Ikerketa	118	454.008 €
Kultura eta Kirolak	137	306.200 €
Ondarea eta Ingurumena	58	212.230 €
OROTARA	249	972.438 €

2017. urtearen aldean -laguntza-programa urte horretan hasi zen- **artatu den eskaera kopuruak gora egin duela** azpimarratu behar da, 2018an 249 izan ziren eta 139 aurreko urtean, eta gauza bera gertatu zen emandako diru-kopuruari dagokionez, milioi bat euro 2018an, eta 600.000 inguru aurreko ekitaldian.

Laguntzak esleitzeko, **hautagai ziren ekimenak Vital Fundazioaren eginkizuna eta ikuspegiarekin eta bere plan estrategikoarekin bat etor zitezela baloratu zen**, euskararen erabilera, genero berdintasuna, desberdinen gizarteratzea eta boluntariora bultzatzea, eta praktika berritzaileak gara zitzatela, baita gizarte kohesiorako eta eraldaketarako praktikak ere, beste alde batzuen artean.



4

1.2 Kultura, Aisialdi eta Kirol arloa

Vital Fundazioa erakusketa zentroa

Posta kalean duen gunearen eraldaketa estreinatu du Vital Fundazioak 2018an -Foruen plazaren aurrean duen eraikina-. 1.400 metro koadroko espazio zabala da, kulturaren zerbitzura, hiritarren eta bisitarien gozamenerako.

Hemendik aurrera, Vital Fundazioaren erakusketa zentroa (Posta 13-15), hiru aretok osatzen dute eta topalekua den harrera-gune zabalak. Eremu horretan Vital Fundazioa aretoak bere betiko lekuan dirau, beheko solairuan, eta Luis de Ajuria aretoa lehenengo solairuan, eta beste bat gehitu da, Araba aretoa -lehen Dendaraba merkataritza gunean zegoena-. Azken horrek sarrera independentea du kaletik, eta barrutik ere bai.

Eraikinari egin zaion eraldaketaren ostean, urteko 110.000 bisitari hartzeko aukera izango du eta epealdi horretan hogeita hamar erakusketa inguru antolatu daitezke, bostehun lanetarako. Berrogeita hamar artista baino gehiagorentzako espazioa urtero.

Inbertsioan, harrera-gunea 'kórner expres' izan dadin egokitzeko lana ere kontuan hartu da, topagune modernoak, zeinetan publikoak aretoetatik gidatzeko seinaleketak kokatuta dagoen, eta kafe bat hartzeko, katalogoak begiratzeko eta liburuak trukatzeko aukera ere bai. Interes kulturala duen edozein herritarrek sinatutako aldi baterako erakusketak ere kokatzen dira abegi-puntu horretan.

Vital Fundazioaren aretoa

Vital Fundazioaren aretoak (Posta 13-15, beheko solairua) arrakasta handia izan zuen, berriro ere, publikoaren artean, bere erakusketetan, 2018. urtean. Urtean zehar antolatutako **bost erakusketek** -aurreko ekitaldian baino bat gehiago- **104.970 pertsona** erakarri zituzten, hau

da, % 15 igo zen publikoaren etorrera, 2017koaren aldean.

‘Trena ziztu bizian. 1889, Vasco Navarro-tik Orient Express-era’ erakusketak eman zion hasiera urteari, familientzako erakusketa, trenaren munduari omenaldia egiteko pentsatua. 2017ko abenduaren amaieran inauguratu zen

erakusketa eta 2018ko apirilera arte izan zen jendaurrean ikusgai. 800 pieza inguru zituen, maketak, argazkiak eta beste zenbait elementuren artean. Profesional entzutetsuen argazkiak ikusteko aukera izan zen, hala nola Alberto Schommer, Enrique Guinea, Santiago Arina eta Ceferino Yanguas, besteak beste. Gainera, ‘Green Corner’ delakoa ere izan zuen erakusketak, Vasco-Navarro trenaren ibilbidea birsortzen zuen espazioa: Araba eta Euskadiko bide berde arrakastatsuenetakoa. Gasteiztarrei keinu bat egiteko pentsatua, **64.022 bisitari inguru izan zituen 2018ko lehenengo hiru hilabeteetan.**

Apirilaren erdialdera inauguratu zen **‘Rubens-etik Van Dyck-era. Pintura flandriarra Gerstenmaier bilduman’**. Erakusketa horrek, hirurogeita hamar lanen bitartez, Europako artearen historiako ziklo garrantzitsuenetako batetik egiten zuen ibilbidea. Bildumagile pribatu baten interesari esker, Hans Rudolf Gerstenmaier alemanari esker, gure hiriak XV. mendetik XVIII. mendera arteko historiatic ibilbidea egiteko aukera izan zuen, pintura flandriarren margolan onenen bitartez. Hogeita hamar olio-pintura eta berrogei grabatu, Rubens, Van

Hiru aretotan banatutako 1.400 metro koadroko Erakusketa Zentro berria du urte honetatik aurrera Vital Fundazioak. Urtean 110.000 bisitari inguru jasotzea ahalbidetuko du gune horrek.

Adrian de Gryef eta Verbruggen-en lanak izan ziren ekainaren erdialdera arte zabalik izan zen erakusketaren protagonistak eta **11.401 bistari izatea lortu zuten.**

Alberto García-Alix argazkilariaren azken 25 urteetako bizipenek bete zuten Vital

Fundazioa aretoa uztailetik irailaren amaierara arte. **‘Gaztaroko mamu gozoa/Dulce monstruo de juventud’** titulupean, aretora hurbildu zen publikoak argazkilariaren irudi-aukeraketa bat ezagutu zuen. Alberto García-Alix Leonen sortu zen 1956an, baina, garai hartan aldatzen ari zen Madrilen zaildu zen 70eko eta 80ko hamarkadetan. Erakusketak leialtasunez islatu zuen arrazako argazkilari horren pertsonalitatea, bere ibilbide profesionaleko bost bosturteko ibilbide profesionalean topatu eta erakarri duen guztia bere egin duen argazkilaria. Orotara **14.941 pertsona** hurbildu ziren bere ikonografia berezia ikustera.

Urriaren erdialdera, Vital Fundazioa aretoak **‘Marraztea eta zizelkatzea espazioan. ICO bildumak’** erakusketari utzi zion bere lekua. XX. mendeko artista handiak euren ideiak paper batean islatzetik eskultura sortze-lanaren hiru dimentsiotara igaro zirela ikustea ahalbidetu zuen erakusketa horrek. Picasso, Dalí, Miró, Gargallo, Barceló, Juan Gris, Antoni Tapies edo Jorge Oteiza artista oso ezagunen ia ehun bat lan eta bozetoren bidez, orain mende bateko arte-errepertorioak eta oraingoak desberdinak direla ikusi zen, eta artistek errealitate berriak sortzen dituztela gaur egun, bolumena eta espazioa konjugatzeko. **8.405 bisitarik** gozatu zuten erakusketa zabalik izan zen bi hilabete eskasetan.

2018ko amaieran, Vitoria-Gasteizko enblema ezagunenetako baten ospakizunaren isla etorri zen Vital Fundazio aretora, eratzun berdea,

Vital Fundazioaren hiru erakusketa aretoen artean 122.635 bisitari jaso dituzte 2018an, hau da, %14ko igoera 2017koen aldean.



iaz bete baitzen sortu zeneko mende laurdena. **‘Nola aldatu garen. 25 urte bete ditu eraztun berdeak’** erakusketak, **El Correoren** lankidetzaz antolatuak, 80ko hamarkadan hiria inguratzen zuen obra-hondakinez betetako eraztunaren bilakaera kontatu zigun, gaur egun den identitate ikurra izan arte, eta Vitoria-Gasteizek urte horietan izan duen eraldaketarekin duen harreman estua. Formatu handiko 22 argazkiez gain, **Iñaki Andrések** eginak, mota guztietako material naturalak ikusi ziren, obra-hondakinak, txatarrak eta hegazkin txiki bat, bizikletak eta manikiak, gaur egun bide berde hori erabiltzen duten kirolariak errepresentatzeko. **6.201 herritar eta turista** joan ziren erakusketara zabalik egon zen iazko abenduko egunetan.

Luis de Ajuria eta Araba aretoak

Vital Fundazioaren kultura-eremuen eskaintza Luis de Ajuria eta Araba erakusketa-aretoek osatzen dute. Bietan helburu eta publiko desberdinak daude.

- **Luis de Ajuria aretoa** (Posta 13-15, 1. solairua)
Luis de Ajuria aretoa, dagoeneko finkatuta Vital Fundazioa aretoaren gaineko aldean, jarduera askotarako eremu zabala du eta erabateko irisgarritasuna, mugikortasun murritzua duten pertsonen irisgarritasuna bermatzen duen igogailu bati esker. Areto

horrek artisten jarduera profesionala bultzatzeko helburuari jarraitzen dio egun ere. Horretarako, erakusketa-espazioa lagatzen du eta Fundazioak antolatutako lehiaketetara aurkeztutako lanak zabaltzen ditu. Iaz **9.863 pertsona** igaro ziren bertatik, hau da, **% 7ko igoera** publiko etorriari dagokionez, 2017ko denboraldiarekin alderatuta.

- **Araba aretoa** (Posta 13-15, behe-solairua), aurtan etorri da Vital Fundazioa erakusketa zentrorra eta elkarteek antolatutako mota guztietako erakusketak egiten dira bertan, horien artean, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearen lankidetzaz egindakoak nabarmentzen dira. Aretoa Fakultate horri lagatzen baitzaio, lizentziatura horretako ikasleek beraien lanak erakutsi ditzaten. Araba aretoa ere igoera izan du hartu dituen bisitei dagokionez, iaz baino **% 6gehiago, 7.802 pertsona** kopurura iritsi da.

Lehendabiziko aldiz, **artista arabar gazteak protagonista dituen egutegi bat** argitaratu du Vital Fundazioak. Gazte horiek Araba eta Luis de Ajuria aretoetan erakutsi dituzte haien lanak azken urteetan, formatu ja edozein izan dela ere. ‘Geu ere artezale gaituzu’ lelopean, **hormarako eta mahai gainerako egutegiak** edi-

tatu ditu Vital Fundazioak 2019rako. Hilabete bakoitzak erakusketan egon den artista bakoitzaren lan baten argazki bat darama inprimatuta. Gainera, **QR kode** bat ere badarama, eta eskuko telefonoen bidea bideo-selfie batera sartzea ahalbidetzen du. Bideo horretan, artista bakoitzak bere lana azaltzen du, pieza horri eta bere lanari buruzko informazio gehiago emateko.

Kordoi Etxea

Vital Fundazioaren egoitza den XV. mendeko eraikin gotiko-zibil adierazgarri honetan, Fundazioaren ondareko zenbait aleren erakusketa iraunkor bikaina dago: interes artistikoko altzariak, pinturak eta antzinako eskulturak, leitoizko zirkulu formako iturriak (eskaleen plater izenez ere ezagunak direnak) eta hainbat jatorritako zeramikak.

Erakusketa dorre-gotorlekuaren zulgunean dago eta jatorri anitzetako **18.865 bisitari** erakarri zituen, Espainiakoak eta nazioartekok. Iazko kopuruaren aldean **%17ko igoera** adierazten duen datua.

Berrikuntza bat izan da aurren, Kordoi Etxea agertzen da **‘El silencio de la ciudad blanca’** bestseller-ean, eta bisitari askorentzako errekamo bilakatu da. Liburuan duen protagonismoa aprobetxatuz, traman hilotz bi agertzen baitira areto gotikoan, lanaren atal hori birsortu da argi eta soinu proiektio baten bitartez, turistek eta literaturazaleek goza dezaten. Ekimenak amabitxi oso berezia izan zuen, **Eva García Sáenz de Urturi** idazlea bera.

Erakusketak eta bisitariak 2018an

Aretoa	Erakusketa kopurua	Bisitari kopurua
Vital Fundazioa	5	104.970
Luis de Ajuria	12	9.863
Araba	14	7.802
Kordoi Etxea	1	18.865
Guztira	32	141.500

Kultura aretoak

Vital Fundazioa aretoa (Bakea 5, Dendarabako 1. solairua, Vitoria-Gasteiz) eta **Luis de Ajuria** aretoa (Alaba Jenerala 7, Vitoria-Gasteiz) publiko guztiarentzako irekita dauden eremuak dira, kulturaz, musikaz, poesiaz eta beste-lakoez goza dezaten. Hitzaldiak, errezitalak, zinema eta beste hainbat diziplina egoten dira aretoen programazioaren barruan. Gaur egun Vital Fundazioaren areto biak elkarren ondora biltzen ari dira Dendaraba zentro komertzialaren lehenengo solairuan.

Areto horietan **Fundazioak berak ekoiztutako kultura-eskaintza** ematen da, hala nola **Astearte Musikalen** ganbera-musikaren zikloa, **Ostiraletako Kantaldietako** kontzertuak, **Euskal Zinemaren Aste ospetsua**, **Euskal Zinema Dokumentalaren Astea** edo **‘Jazz Vital’** kontzertu zikloa.

Horrez gain, gizarte, kultura, hezkuntza edo zientzia arloko beste talde batzuek antolatzen dituzten jarduerak osatzen dute programazioa.

Vital Fundazioak esparru horien erabilera lagatzen die irabazi-asmorik gabeko kultura-ekitaldiak antolatzeko, hala nola hitzaldiak, antzezlanak, errezitalak, kontzertuak edo zinema.

Vital Fundazioaren Kultur Aretoei 292 jarduera eskaini zituzten 2018an zehar, eta 36.901 bisitari hartu zituzten.

Aretoa	Jarduera kopurua	Bertaratutakoen kop.
Vital Fundazioa aretoa	159	24.465
Luis de Ajuria aretoa	133	12.436
Guztira	292	36.901

Jarduera propioak	Jarduera kopurua	Bertaratutakoen kop.
Astearte Musikalak	18	3.409
Ostiraletako kantaldiak	9	1.165
Gabonetako Kontzertuak (Crescendo)	7	1.723
Jazz Vital	5	435
Euskal Zinemaren Astea	5	1.560
Euskal Zinema Dokumentalaren Astea	5	532
Ikus-entzunezkoak	7	911
Poesia	3	398
Magialdia	4	989
Guztira	69	11.122

Jarduerak lagapenean	Jarduera kopurua	Bertaratutakoen kop.
Kontzertuak	15	1.945
Hitzaldiak	136	13.433
Zinema eta ikus-entzunezkoak	53	6.931
Poesia	2	272
Antzerkia eta dantza	5	811
Abesbatzak	9	1.813
Beste lagapen batzuk	8	574
Guztira	228	25.779

Musika-jarduerak

Astearte Musikalak

Vital Fundazioak urtero antolatzen du 'Astearte Musikalak' izeneko zikloa. Ganbera-musikarako esparrua da, eta urteak aurrera joan ahala erreferente bihurtu da probintziako musika-programazioan, bere kalitatea eta ospea direla-eta.



Azaro eta martxo bitartean, asteartero, gure inguruko gazteek, dagoeneko ospetsuak diren bakarlariek, bikoteek, laukoteek, boskoteek eta nazioan nahiz nazioartean ospea duten orkestrek eginiko zenbait errezitaldi izaten dira Vital Fundazioaren Aretoan.

Musika-zikloak dagoeneko 29 urte bete ditu eta **18 kontzertu eskaini ditu** aurten. Orotara, **ganbera-musikaren 3.409 zale** bertaratu dira.

Ostiraletako kantaldiak. Arabako musika korala

Ostiraletako Kantaldiak 1998. urtean sortu ziren, Arabako musika korala barruan jarduerara luzea duten haur-talde guztiei aukera bat emateko helburuz. Dagoeneko 20 urte igaro dira sortu zenetik eta programa hori oso finkatuta dago eta lurraldeko garrantzitsuenetako bat da. Orain arte egindako edizioetan **4.000 abeslarik baino gehiagok** hartu dute parte eta

antolaketa Arabatxo-Arabako Haur Abesbatzen Elkartek laguntzen du.

Ostiraletako Kantaldiak Vital Fundazioa aretoan egiten dira eta ziklo honetan -maiatza eta ekaina hilabeteetan- bederatzi kontzertu programatu ziren, beste hainbeste abesbatzek emanak. 2018an **1.165 ikusle** bertaratu ziren eta Arabako hainbat abesbatza, aurre-eskolania eta eskolanien ahotsez gozatu zuten. Talde guztien interpretazioen kalitatea aparta da, eta kontzertuetan gaur egungo konpositoreen lanak erabiltzen dituzte, euskal folklorea ahaztu gabe.

Aurten, Vital Fundazioak **Araba abesbatzari** eman dion laguntza azpimarratu behar da, bere 50. urteurrena izan baita, eta **Arabako Abesbatzen Federazioari** emandako laguntza ere, bere 30. urteurrenean.

EGOren talentu gaztea

Euskal Herriko Gazte Orkestrak (EGO) urtero bi kontzertu aurkeztu ditu (udan eta neguan) Arabako hiriburuan, lurralde honetan Vital Fundazioarekin duen lankidetzaz hitzarmenari esker. Lankidetzaz horri esker, urtero **bi topaketa sinfoniko** jartzen ditu abian taldeak, Vital Fundazioa aretoan, eta gure lurraldeko musikari gazteentzako kalitatezko orkestra bultzatzen du.

Kontzertuan eta irekita

Zaharberritze eta kontserbazio proiektu integralaren barruan, kulturaren sustapenarekin batera, **Santa Maria Katedrala Fundazioak** 'Kontzertuan eta irekita' programa proposatu zuen. Programa horri esker, maiatzetik irailera, hainbat musika-taldek Vitoria-Gasteizko katedral zaharraren arkupean egin dituzte emanaldiak. Vital Fundazioak **10.000 euroko** ekarpena egin zuen katedralako eraberritutako gunea ekintza kulturaletarako sustatzeko helburua duen ekimen horretarako.

Schubertiada Araba

Valdegobiako Udalak laguntza eskatu zion Vital Fundazioari, ganbera-musikako Europako kontzertu garrantzitsuenetako batzuk Euskadira ekartzeko, Bartzelonako Franz Schubert Elkartearen eskutik. Uztailean, lau kontzertu programatu ziren, jarraikako lau larunbatetan, Bachicabo eta Tuestako elizetan. Eskualde horretan kultura jarduerak hornitzea zen helburu, eliza erromaniko horiek jarduera turistikoaren artean sustatzeko. **10.000 euroko** ekarpena egin zion Vital Fundazioak proiektu interesgarri horri.

Osteguna Rock Festival

Rock musikak ere badu Vital Fundazioaren laguntza. Hartara, joan den ekainaren 21ean, Osteguna Rock Festival-aren beste edizio bat egin zen Vitoria-Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan, **Araña del Rock Kultura Elkartearen** eskutik, gure erakundearen laguntzaz, gure hiriko publikoari punta-puntako 4 talde hurbiltzeko, Azkena Rock Festival-aren bezperan. Radiofobia (Vitoria-Gasteiz), Las Furias (Bartzelona), Doojiman & the Expolders (Stokholm) eta The Golden Grahams (Bartzelona) izan ziren kontzertuetako protagonistak.



Midnight Boogie Weekend

Vital Fundazioak eta **Helldorado Kultura Elkar-teak** berriztu egin zuten haien arteko lankidetzaz, **soul eta R&B musikari buruzko bigarren jaialdia** burutzeko joan den azaroan. Kontzertu aretoan zuzeneko musika-saioak emateaz gain, 'Midnight Boogie Weekend' ekimenak Paul Justman-en 'Standing in the shadows os Motown' dokumentalaren emanaldia ere izan zuen azaroko azken asteburuan, Luis de Ajuria aretoan, baita DJ saioak eta musika-tailerrak ere, estilo hori etxeko txikienei hurbiltzeko, **Julián Maeso** teklatu jotzailearen eskutik. Musika-tailerrak Kordoi Etxean burutu ziren.



Jazz Vital

Jazz Vital ere bildu zaio gure kultura eskaintzari, genero horren zaleen gozamenerako, erreferentziakoak eta ospe handikoak diren **Musikene-Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren eta Jesús Guridi Musika Kontserbatorioko** ikasleen eskutik. 2018an, musika jaialdi horren hirugarren edizioa bete da. 2016an abiarazi zen eta **Luis Aramburu Musika Eskolako** ikasleei ere kontzertuetan parte hartzeko aukera zabaltzea izan da aurtengo berrikuntza. Kontzertuak maiatza eta ekaina bitartean egin ziren, Vital Fundazioa aretoan.

Mugako kids

Vital Fundazioak eta **Mugako Musika Elkar-teak** 'Mugako Kids' proiektuaren IV. edizioa jarri zuten abian urrian. Gaur egungo musika elektronikoa gazteei eta familiei hurbiltzeko

helburua duen ekimena da. Aukeratutako agertokia **Artium Museoa Zentroa** izan zen.

Proposamen berritzaile hori '**Mugako Festival**' lehiaketaren barruan kokatzen da. Hiri-lehiaketak da, gaur egungo musika elektronikoa erakusteko, eta esperientzia interaktibo bat proposatzen du, musikak pertsonen gogo-aldartean dituen eragin nabariak azaltzeko. Horretarako, bidaia artistiko bat egin daiteke, familiarekin musika elektronikoa aukera onenen errit-mora gozatzeko.

Arke Kultura Elkartea

Kulturari ematen zaion laguntzaren ildotik, zehazki, musikarekin zerikusia duten egitasmoen lanketa eta abiarazteari dagokionez, Arke Kultura Elkartearekin lankidetzan aritzen jarraitu zen, '**Al calor del invierno**' **Gabonetako kontzertuaren** programaziorako. Principal antzokian errepresentatu zen abenduaren 21ean eta 22an.

Gainera, **Agurain eta Amurrio** Arabako herrietan '**La historia de un soldado**' lanaren estreinaldia egin zen, Arke konpainia arabarraren beste proiektu bat, Vital Fundazioaren laguntzaz egin hori ere.

Beste zenbait lankidetzaz

Musika bere barietate guztietan hedatzeko apustuaren alde egin du Vital Fundazioak, ondorioz, laguntza ugari ematen ditu elkarte eta erakunde askorentzat, esaterako, **Sinkro Musika Elkarteari** ematen dion laguntza, '**Bernaola Jaialdia**' egin dadin Vitoria-Gasteizko hainbat tokitan.

Udalekin lankidetzan ere aritzen gara, hainbat jarduera abiarazi daitezela, esaterako, **Arabako Errioxako Organo II. Jaialdia** (Guardiako kuadrilla); Triskari Dantza Taldearen '**Izarren hautsa**' musika eta dantza ikuskizuna (Izarra); **Musika hemen eta orain** (Urkabustaiz) eta **U.S.T. Singers** abesbatzaren kontzertua (Agurain).

Historiaren sustapena eta hedapena

Arkeologiarako Arabar Institutua

Arkeologiarako Arabar Institutuak duela 60 urte dihardu lanean. Ikerketa arkeologikoaren etapa guztiak bete ditu, aztarnategi berriak aztertzeko prospekzioetatik hasita, kultura-epealdi bakoitzerako landutako programe-tan planteatutako galderei erantzuna eman diezaieketen indusketetatik jarraitu, eta emaitzen hedapenaz amaituta, argitalpen eta hitzaldien bidez.

Vital Fundazioak laguntza eman dio Arkeologia Institutuari, **ondare jarduera arkeologikoen programa** abiarazi dadin, hala nola bisitaldiak Kuartangoko haranera – dolmen-estaziora nahiz Andagosteko Guduren Interpretazio Zentrora-, eta hitzaldiak, esaterako ‘Lautadako jauntxoak’ gaiari buruz egin zena. **Arabar kanpaleku erromatarrek lokalizatzeko programa** garatzen ere lagundu dugu eta **Giza Osteoarkeologia ikastaroa** garapenean ere bai (Historia hezurren bitartez).

‘Zilarrezko 5.000 dukaten truke. Duintasun historia bat’

Antoñana eta Kanpezuko herritarrek 1635ean euren askatasuna berreskuratu zuteneko gertakizun historikoa birsortu zuten uztailaren 14an eta 15ean. **Aguake Emakumeen Elkartek**, Vital Fundazioak lagunduta, **‘Zilarrezko 5.000 dukaten truke. Duintasun historia bat’** kaleko antzezlan antolatu zuen.

Arabako Mendialdeko Erdi Aroko hiribildu bi horien historiaren une zehatz batean girotuta. Nafarroa eta Gaztelako erresumen arteko borrokak izan ziren mendeetan zehar hiribildu bi horiek eskuratzeko. Euren askatasuna erosi zuten eta foruak berreskuratu zituzten Antoñana eta Kanpezuko herritarren historia konta-

tzen du antzezlanak. Horretarako, 5.000 dukat ordaindu zizkieten Orgazko kondeei, bi mende luze iraun zuen basailutza-harremanari amaiera emateko.

Navaridas XX-XXV: Upategiak, kultura eta gizartea

Navaridasko Udala landa-eremukoko despopulazioaren kontra borrokatzen ari da ‘Navaridas XX-XXV: Upategiak, kultura eta gizartea’ garapen iraunkorreko proiektuari esker. Proiektu horren eskutik, mahastizaintza eta ardogintza tokiko sektorea bultzatu nahi du, eta herriko ingurumen eta kultura ondarea sustatu ere bai. **Leandro Sánchez** arkeologoaren eskutik, bera baita programaren ideologoa, Arabako landa-eremuan aitzindaria den proiektua abiarazi da.

Ardoa da jarduera horretako ardatz nagusia, eta gaur egun Navaridasen lanean jarraitzen duten sei familia-upategietatik lauk hartzen dute parte proiektuan. Ideia da ardoaren inguruan jarduerak egiten jarraitzea, sustatzeko eta, aldi berean, lanpostu eta zerbitzu berriak sortzea ahalbidetuko duten sinergiak sortzea. **15.000 euro** bideratu ditu Vital Fundazioak proiektu horretarako lehenengo urte honetan.

Bizitzarako pinturak

Vital Fundazioak lankidetza hitzarmena sinatu zuen aurren, berriz ere, **Ormandetxa Kultura Elkartearekin**, eta **9.000 euroko** laguntza eman zien zenbait kultura-jarduera burutzeko. 2014an ekin zitzaion lankidetza horri, ‘Bizitzarako pinturak’ lan murala sustatzeko Elkartea eratu zenean, Xabier Egaña pintorearekin lotura zuen pertsona talde bati esker. Antezana/Andetxako elizako hormen 400 metro koadrotik gora salaketatik itxaropeneraino doazen motiboz apaindu zituen artista horren lana sustatzea, zabaltzea eta ikusaraztea dute helburu.

Eliza zaharberritu ondoren, **bisitaldi programa bat** abiarazi da -2018an zehar 83 bisitaldi egin dira- eta **beste zenbait kultura-jarduera**, eta **2.919 partaide** izan dituzte.

Ondare irekia

Erdi Aroko Araba proiektua garatu du **Sans Soleil Kultura Elkartek**, Vital Fundazioaren lankidetzaz. Ondare Irekia ekimen bat da, eta Arabako ondarrerako **irekiera digitala** du helburu, hedapena eta ezagutza errazteko.



Smartphone baten bidez eskaneatu daitekeen **QR kode** baten bidez, informazio historiko-artistiko eguneratua duen fitxa osatu batera sar daiteke. Zenbait baliabide digital ditu fitxak, 360° argazkiak, bideoak eta abar, ondarean sartzeko modu aparta. Proiektuaren lehenengo atalean **Arabako Donejakue bideko zortzi eliza** sartu dira.

Gorbeiaiko Artzainak dokumentala

ARATE- Artzain Txakurraren Aldeko Arabako Elkartek Vital Fundazioaren **6.000 euro** jaso zituen, Gorbeiaiko artzaintzaren iragana, oraina eta etorkizuna jasoko dituen dokumentala egiteko, artzain lanbidearen garrantzia azpimarratzeko eta lanbide hori pairatzen

ari den bilakaera negatiboari aurre egiteko, saroi kopuruari eta lanean diharduen artzain kopuruari dagokionez. Gure probintziako historia eta kultura ondareak iraun dezala da helburua.

Araba Sarea. Euskadiko emakume-espioiak

Sabino Arana Fundazioak eta Vital Fundazioak, kultura arloko lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, 'Araba sareari' buruzko ikerketa-programaren hasiera diruz laguntzeko helburuz. Ekimen hori memoria historikoa berreskuratzeko eta gizarteratzeko azterketa batean sartu zen, eta dituen helburuen artean, Euskadiko emakumeek, Gerra Zibilean, gerraostean eta Bigarren Mundu Gerran, sare horretan jokatu zuten funtzioa zehaztea dago.

Proiektu horretan zenbait fase egon ziren, eta horien artean azpimarragarrienak: Ikerketaren hasiera, 'Araba sareari' buruzko argitalpen bat, erakusketa bat, dokumental bat, omenaldia sareko liderra izan zen Luis Alavari eta esker ona sareko kideei.

Beste lankidetzak batzuk

Vital Fundazioak Arabako kultura ondareari ematen dion bultzada argi geratu zen iaz ere, urte osoan, gure lurraldeko erakunde asko eta anitzekin sinatu diren hitzarmenetan, esaterako, **Saltzedoko Lagunen Kultura Elkartearekin**, **Saltzedoko Nekazal-eremuko Inauteri Arabarrak** berreskuratzeko; Bastidako Udalarekin, **Manuel Quintanoren Heriotzaren II. Mendeurrena** ospatzeko programatutako jarduerak egiteko; **Añanako Udalarekin**, '**Gesaltza-Añana hiribildua ezagutzen arte eszenikoen bitartez** proiektuaren garapenerako, bederatzi antzezlan familiaz osatutako publikoarentzat. **Murriarte Kultura Elkartek** '**Samaniegoren lekua**' antzezlan aurkeztu zuen, eta uztailaren

20an eta 21ean antzeztu zen herriko Jasokunde elizan. **Landazuri Elkarte Soziokulturalak**, bere aldetik, Vital Fundazioaren laguntza jaso zuen **Arabako erromanikoaren argazkien Federico Baraibarren liburu-katalogoa** argitaratzeko.

Gure zinemaren alde egiten dugu

Euskal Zinemaren Astea

Vital Fundazioak antolatzen duen Euskal Zinemaren Astearen 34. edizioa izan da 2018. urtekoa. Otsailaren 26tik martxoaren 3ra bitartean **euskal profesionalek** aurreko urtean **ekoiztutako** edo **zuzendutako** zinema-lanik onenetako batzuk ikusteko eta saritzeko aukera izan zuen publikoak.

Euskal Zinemaren Asteak bere publiko-errekorra gaingitu zuen 2018an, 1.500etik gora ikusle izan baitzituen, aurreko urtean baino % 24 gehiago

Duela hiru hamarkada luze sortu zenetik, jaialdi hau gure zinemari laguntzeko plataforma izan dadila izan

da Vital Fundazioaren helburua, modalitate guztietan.

Euskal Zinemaren Astearen xedea da gure inguruko profesionalek parte hartu duten zinema-lanak erakusten laguntzeko plataforma eta laguntza izatea, eta, era berean, bertaratutako publikoak parte har dezala sustatzea, izan ere, emanaldi bakoitzaren ondoren gustuko izan duten filmaren aldeko botoa eman dezakete. Beste urte batez, ikusleen babesa izan du. Astearen zehar **5 film luze** eta **6 film labur** ikusteko aukera izan dute. 34. edizio horretan, 'Handia', 10 Goya sari irabazi dituen euskal film luzea, izan da asteko film bozkatuena.



Bertaratze arrakasta handia izan da aurten ere, bai emanaldietara, bai film bakoitzaren protagonistekin antolatutako mahai-inguruetara. 2018an, **1.560 ikusle** izan zituen zinema-ziklo horrek. Publikoen **bertaratzea % 24 hazi da** iazko edizioaren aldean, beraz, finko sustraitu da Vitoria-Gasteizen.

Euskal Zinema Dokumentalaren Astea

Urriaren 22tik 26ra bitartean Euskal Zinema Dokumentalaren Astearen 4. edizioa burutu da Vital Fundazioa aretoan. Vital Fundazioak bultzatutako beste kultura-ekitaldi bat izan zen eta hainbat gaitako **lau dokumental** eman ziren eta **beste hainbeste film labur**.

Euskal Zinema Dokumentalaren Asteak, lehen Euskal Zinemaren Astearen barruan sartzen zuen genero horri eman nahi dio protagonismoa. Emanaldi bakoitzaren hasieran dokumentalaren aurkezpena egiten da, eta emanaldia amaitutakoan, horri buruzko **mahai-ingurua** egiten da. Aurtengo berrikuntza egun batean eman ziren lau film dokumental laburren emanaldia izan da.

Programazioa kalitate handikoa izan da eta errealitate oso desberdinei buruzkoa, esaterako, genero indarkeria, erlijioa familia barruan, pobrezia, abenturak, historia, e.a. **532 pertsona** bertaratu ziren **5 emanaldi-saioetara**.

‘Cortada’ film laburren jaialdia

EHUko Arabako Campusak antolatuta, Vital Fundazioaren babesarekin, Cortada Lehiaketak **XXII. edizioa** bete du. Horrela, erreferente finko bilakatu da Euskadiko eta Estatuko gainerako zinema-lehiaketaren egutegian, formatu txikiko zinemaren esparruan. Guztira **1.000 film labur baino gehiago** jaso ziren ziklo honetan parte hartzeko, eta horietatik, **48 lan** aukeratu ziren lehiaketa honek ematen dituen sarietarako. Lehiaketa Vitoria-Gasteizen izan zen, abenduaren 12tik 15era bitartean.

Gazte Film Fest

Vital Fundazioak, Zinhezba eta **KalakaLab** kultura elkarrekin batera, ekimen berritzailea antolatu zuen abenduaren 14a eta 16a bitartean, haur eta gazteentzat egina. Gaztefilm Festen bigarren edizioak **18 urtetik beherakokoen-tzako zinema-gune bat** sortzea izan zuen helburu, areto komertzialetan ematen ez diren filmak aukeraketa batez gozatzeko aukera izan dezaten, ondo pasatzetik harago, pentsamendu kritikoa eta baloreen garapena sustatzen duten film horien artean.

Emanaldiak Vital Fundazioa aretoan izan ziren eta beste agertoki batzuetan ere bai. Bigarren edizio horretan **bi atal berri** izan zituen: ‘Txiki’ deritzon atala, hiru urtetik gorako haurrentzat eta ‘Neska-mutilentzat egindako zinema’. Gaztefilm Festek, zinema-saioez gain, aldi berean egin ziren beste zenbait jardura ere izan zituen (tailerrak, hitzaldiak, e.a.).

APIKA, Ikus-entzunezkoen Ekizleak Arabako Elkarteak

Elkartearekin elkarlanean, Arabako zinemaren profesional guztien erreferentzia puntua izan

dadin. Aurtan **‘Arabako Zinema Dokumentala Meeting Point’** aurkeztu da, zinema eta arlo horretako sortzaileak hurbiltzeko interes duen publikoari. Mahai-inguru eta hitzaldien bitartez, kulturen eta industrian parte hartzen duen sektore hori sustatzea eta ezagutzera ematea da helburua, baita ikus-entzunezkoen Arabako ekoizpen-arloan lan-sarea eta kontaktuak eratzea ere.

Vital Fundazioa Mendi Tour

Vital Fundazioa Mendi Tour-a, mendi zinema-jaialdia da, Mendi Film Festival-en sari eta emanaldi onenen hautaketa bat biltzen duen. Aurtan Mendi Tour Vitalen seigarren edizioa bete da, eta otsailaren 19tik 23ra bitartean burutu zen. Vital Fundazioa aretoa bete zuten **1.248 lagunek** onen artean dauden zinema-genero horretako **9 zintaz** gozatzeko aukera izan zuten. Eskalada eta alpinismoarekin batera, muturreko kirolak, eskia, natura, ingurumena, etnografia eta abar lantzen dira film horietan.

Agurain eta Amurrio ere Mendi Tour Vitalen agertoki izan zirela aipatu behar dugu, martxoaren 7an eta 8an, hurrenez hurren, aurtengo berrikuntza izan baita.

Lehiaketak

Arte Vital lehiaketa

Vital Fundazioak Arte Vital lehiaketarako deialdia luzatu zuen martxoan, **lurraldeko artista berriek** ezagutzera emateko aukera izan dezaten. Lehiaketak sari handiak ditu eskudirutan, eta bere xedea adin guztietako artistek parte hartzea da, arte plastikoa edozein dela ere: **pintura, eskultura edo argazkilaritza**. Guztira hainbat diziplinako **128 artistek** hartu dute parte hirugarren edizio honetan, parte hartze

Parte hartzeak % 75 egin du gora aurreko edizioaren aldean, beraz, finkatuta dago arte Vital lehiaketa. Aurtan 128 artista arabarrek hartu dute parte



arrakastatsua, beraz, % 75 egin baitu gora.

Horrez gain, Vital Fundazioak erakusketa-gela bat lagako die edizio bakoitzean saritutako egileei, erakundeak hurrengo urtean antolatutako programazioan erakusketa bat egin dezaten elkarrekin.

Vital Poesia lehiaketa

Martxoan, Vital Fundazioak, 'Vital Poesia' lehiaketaren aurtengo edizioa abiarazi zuen, Araban bizi diren 18 urtetik gorakoentzako lehiaketa. Arabarren parte hartzerako deialdi irekia da sortzetik; izan ere, **euren trebetasun poetikoak garatzeko aukera** eman nahi die arabarrei.

Modalitate bakarra izan zuen deialdiak, konposizio originalak eta argitaratu gabeak aurkeztu behar ziren, euskaraz edo gaztelaniaz idatziz, gaia librea eta ezin ziren 25 bertsotik gorakoak izan.

Uda kulturalak Vital Araban zehar programaren eskutik

Vital Araban zehar Programak Vital Fundazioak lurraldearekin duen konpromisoa indartu egiten du. Programaren helburua da Arabako udalerriei, udan, askotan Arabako zenbait herritarra heltzen ez den kultura-programazioa eskaintzea, baita bertako artista-taldeei jendaurrean aritzeko aukera ematea ere.

Programaren XIV. edizioan **18.206 lagunek** hartu zuten parte joan den udan antolatutako **93 jardueretan**. Besteak beste, musika-taldeen emanaldiak, abesbatzen errezitalak eta dantza eta ballet erakustaldiak izan ziren hiru hilabete baino gehiagoko kultura-programazioaren barruan **Arabako 61 herritan eta Trebiñuko Konderriko 2tan**.

Vital Araban zehar programak Vitoria-Gasteizetik kanpoko biztanleei programazioa hurbiltzeko helburua bete du beste urte batez; izan ere, hori gabe, zail izango lukete jarduera horietaz gozatzea.

Jaibus Vital. Dibertsio goren, arriskurik gabe

Jaibus Vital garraio-zerbitzuek bere hemeretzigarren denboraldia bete zuen uda honetan. herriko festak ospatzen dituzten hurbileko herrien artean egiten den garraio-zerbitzua da. Ekimen horren helburua Arabako gazteak lurraldeko herrietan antolatzen diren jaietara segurtasunez joatea da.

Ekainaren 16tik urriaren 6ra arte, Vital Fundazioak autobus flota handia jarri zuen errepidean eta, horri esker, **15 urtetik gorako 2.764 gazte** programan sartuta dauden **20 helmugako** jaietara joan ahal izan ziren.



41 ibilbide desberdin, eta horietatik 36 lurraldeko 19 jaietara eraman zituzten gazteak, eta gainerako bostek Vitoria-Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaietara eraman zituzten abuztuaren 4an, larunbata.

+55 kultura programak

Vital Fundazioak kultura, kirol eta aisialdi ekintzak sustatzen ditu 55 urtetik gorako adinekoentzat berariaz. Ekimen horien helburua adin-talde horretako pertsonen kulturaz gozatzea eta edozein jolas- eta prestakuntza-jarduera sustatzea da. Urtean, orotara, **4.332 pertsonen** hartu dute parte proposatu direnen arteko jardueraren batean.

Kultura jarduera eskaintzen artean, **mendi-ibilak** izan dira arrakastatsuenak, Arabatik egin denak, 1453 pertsonen hartu dute parte, nahiz eraztun berdean ardaztuak, 835 pertsona

erakarri zituen eta. **Hitzaldi zikloa eta zineforuma** ere nabarmendu behar dira, edo lurraldetik egin diren **kultura ibilaldiak**.

Aipamen berezia merezi dute boluntariotza jarduerak. Hiru boluntariok irakurri egiten ditte egoitzatan bizi diren 544 pertsona ingururi.

+55 GIZARTE ETA KULTURA PROGRAMAK	+55
POESIA JARDUERAK	139
OSASUNAREN GELAK ARABAN	173
POESIA LEHIAKETA	36
NAZIOARTEKO BERRIAK AZTER-TZEKO KLUBA	90
HITZALDIAK ARABAN	98
POP ABESBATZA	45
HITZALDIAK ETA ZINEFORUMA	557
PETANKA	45
KULTURA IBILALDIAK	346
MENDI-IBILIAK ERAZTUN BERDETIK	835
MENDI-IBILIAK ARABATIK	1.453
KULTURA BOLUNTARIOTZA (boluntariotzaren jasotzaileak)	122
KULTURA BOLUNTARIOTZA (pertsona boluntarioak)	3
MUSIKAN ETA TRESNA JOTZEN HASTEAK	30
ERABILTZAILEAK GUZTIRA	4.332

Beste zenbait kultura-ekimen

Magia lurralde osoan

Vital Fundazioak Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Magia Lehiaketarekin **-Magialdia-** duen lotura duela zenbait urte hasi zen, lankidetzahitzarmenen bitartez eta erakundearen kultura-eremuak lagatzearekin. Izan ere, bere egoitza, Kordoi Etxea, **'Hurbileko magia ibilbideak Alde Zaharretik'** ikuskizunaren agertokieta bat da, eta Vital Fundazioa areto horretan egiten dira urtero **Haurren Magia Gala** eta **Magia**

Solidarioaren Gala. Aurten XXX. edizioa bete denez, gainera **Nagusientzako Gala** ere izan zuen, **Vital Fundazioa aretoan** hori ere.

Jaialdiarekin duen konpromisoa indartu du Fundazioak, **‘Magialdiaraba’** programan ere parte hartuz. Horren bidez, goi-mailako ikuskitunak eramaten ditu gainerako probintziara. Vital Fundazioaren laguntzari esker, Lurralde-tik egindako ibilbidea zabaldu egin da eta, dagoeneko, **11 herritara** heldu da. Herri horietan magia ikuskizunak izan zituzten, baita taillerak ere, irailaren 6a eta 16a bitartean.

Arabako liburu-saltzaile elkartearen II. azoka

Arabako Liburu-saltzaileen Elkartek Arabako Liburu-saltzaileen II. Azoka antolatu zuen. Vitoria-Gasteizen egin zen, **maiatzaren 25a eta ekainaren 3a bitartean**, publiko arrakasta handiz eta aldi berean hainbat jarduera egin ziren, esaterako hitzaldiak eta liburu aurkezpenak. Lurraldeko liburu-denda gehienek osatzen dute Elkarte hori eta Vital Fundazioaren laguntza garrantzitsua dute. Kultura sustatzeko eta hedatzeko egiten dute lan, horretarako oinarrizko irizten dieten elementuetatik, hau da, liburua, papera, liburu-dendak.

Irudika

‘Irudika’, Ilustrazioaren nazioarteko Topaketa, Euskadiko Ilustratzaileen Elkartearen ekimena da eta Vital Fundazioaren laguntza izan zuen horrek ere. Vitoria-Gasteizko Artium Museoa egin zen azoka eta hitzaldiak nahiz tailerrak burutu ziren, **networkinga** animazio, komiki eta ilustrazio arloko mundu mailako erreferentziako profesionalekin.

Aurten ‘Irudika’ren bigarren edizioa burutu zen, eta Mexikotik, Italiatik eta Alemaniatik etorritako adituek hartu zuten parte, euskal sortzaileei laguntza emateko, euren lana atzerrian saltzeko era onenei buruz. Nazioartekotzea izan da jardunaldi horien ‘leiv motiv’.

Publiko arrakasta handia izan dute eta bideo-jokoen eta diseinu grafikoaren sektoreko profesionalentzat ere irekita egon dira.

Vital Antzerki eta Kultur Vital

Vital Fundazioak, **Beñat Etxepare Haur eta Gazteentzako Antzerki aretoarekin** elkarlanean, Vital Antzerki Programaren hamahirugarren edizioa abiarazi zuen, antzerki-jolasean aritzeko familian. Teatro Paraisorekin koordinatuta burututako ekimen horri esker, Gasteizko hainbat ikastetxetako 3 eta 5 urte arteko **3.200 eskola-umek** eta **230 irakaslek** esperientzia artistiko aparta bizi zuten antzokian.

Teatro Paraíso konpainia arabarrak eszenaratu zuen ‘Lorategian’ ikuskizunaren **18 emanaldi** egin ziren. Lan horrek antzerki-jolasa sustatzea du helburu, baita umeen eta familien arteko emozioen adierazpena erraztea ere.

2018an **‘Kultur Vital, kulturarekin hazten’** sortu zen, ‘POCTEFA 2018-2010’ proiektu europarrean ildotik datorren ekimena, eta Biargi Elkartearkin batera eratua, Vitoria-Gasteizen eta Araban kultura alfabetatzerako programa berritzailea bultzatzeko.

Proiektuak haurren eta gazteen hezkuntza artistikoa sustatu nahi du. Horretarako, kultura eremu horretako prestakuntza eta hazkuntza ahalbidetuko duten ekintzak garatuko ditu. **Geletan landuko diren euskal kulturarekin eta euskararekin lotutako lan eszenikoei babesa eta laguntza emateko programa** da, era berritzailean aurkeztua eta konpromisoaren alde eginez. 0 eta 5 urte bitarteko geletan burutu ziren tailerrak, txikien artean jakinmina eta emozioak deskubritzeko, eta kultura alfabetatze tailerrak ere eman ziren, hezitzaileentzat eta heziketa bereziko zentroetarako.

‘Poetak maiatzean’ jaialdia

‘Poetak maiatzean’ Nazioarteko Poesia Jaialdia, Hunkitu Arte Elkartek eta Vital Fundazioak antolatua, kultura, arte, sormen eta, ba-

tez ere, letren eztanda da. Herritarrak konkistatzea du helburu, poesia kaleetara, saltokietara, antzokietara, museoetara, lorategietara, eta tranbiara ere aterata. Seigarren edizioa bete zuen aurten, eta gazteengan ardaztu zuen protagonismoa. Zehatz-mehatz, gazteenen talentua bultzatu eta ikusarazteko programazio berezia diseinatu zen.

Laurogeitik gora jarduera programatu ziren, formatu askotan eta bostehunetik gora pertsonak hartu zuten parte, 10.000tik gora biztanle joan ziren hitzordu horietako batera maiatzaren 7a eta 26a bitartean, Vitoria-Gasteizen nahiz lurraldeko hainbat lekutan.

TDEX Vitoria-Gasteiz

Asociación para la Difusión del Conocimiento Tdex Almendra Medieval elkarteak Vitoria-Gasteizen sortu zen 2015ean, eta hirira Tdex ekitaldi bat ekartzea du helburu, hartara hiria sustatzeaz gain ezagutza partekatuko delako. TED ekitaldiak, teknologia, entretenimendu, diseinua (Technology, Entertainment, Design) 'Zabaltzea merezi duten ideiak' arloan diharduen Estatu Batuetako irabazi asmorik gabeko elkarte bati esker eman ziren ezagutzera. TED oso ezaguna da urtero egiten duen 'TED Conference' biltzarraren ondorioz, baita 'TED Talks' bere hitzaldiak direla eta, izan ere, gai espektro zabala betetzen dute, hala nola zientziak, artea eta diseinua, politika, hezkuntza, kultura, negozioak, gai globalak, teknologia, garapena eta entretenimendua. 'TDEX Vitoria-Gasteiz' apirilean egin zen, Arabako hiriburuko Europa Jauregian.

Etika klusterra

Gizartean dauden erronka moral konplexuen aurrean dugun kezka dela eta, Euskadi osoko pertsona, erakunde eta elkarte talde batek egitura bat sortu du lankidetzaproiektuak sortzeko. Hartara, balio etikoen azterketa, ezagutza eta aplikazioa handitzea eta zabaltzea du xede. **Euskadiko Etika Klusterra Fundazioak** etikari buruzko lehenengo euskal klusterra aurkeztu zuen 2015eko urrian Vital Fundazioaren eskutik.

Aurten, Euskadiko Etika Klusterra Fundazioak **Lidergo Etikoreen Biltzarra** aurkeztu zuen. Maiatzaren 15an eta 16an izan zen Villa Suso Jauregian, eta bertan, boterearen jardun etikoari eta gizartean duen eraginari buruzko teoriak eta ideia praktikoak aztertu eta eztabaidatu ziren.

Gainera, Klusterrak **Oinarrizko Etikari buruzko beste ikastaro** bate ere antolatu zuen eta Etika Foroak **3 hitzaldi** eman ditu askotariko gaiei buruz: etikaren irakaskuntza, lan-bizitzaren etika edo etika kirolean.

Gauekoak. Aisialdi arduratsua

Vital Fundazioak 2016. urtean ekin zion Gauekoak programarekin duen lankidetzari. Ordezko aisialdi programa osasungarria da, **16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat**, Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatutakoa. Bere jarduera-eremua asteburuko kultura, kirola eta aisialdia dira. Gaur egun, erreferentzia da mota horretako jardueretan; izan ere, abian jarri zenetik, hiriko milaka gaztek hartu dute parte.

Iaz, **M-Fest** jaialdiaren bigarren edizioa egin zen uztailean, **emakume artistak ikusarazteko** helburu duen jaialdia. M-Fest ekimenaren eskutik, zuzeneko emanaldiak egin ziren eta emakume horien lanen erakusketa bat, zeinetan emakumeak normalean gizonezkoak nagusi diren esparruetan agertzen ziren.

Sortze artistikorako bekak

Vital Fundazioak laguntza eman dio Parasi-
te Kolektiboa Elkarteari, **sortze artistikorako
lau beka** eman daitezen. Elkarreak burutu be-
har du beka horien tutoretza lana eta sortze-
prozesua sortze eszenikorako beraien labora-
tegia burutu behar da.

Konpromisoa Arabako kirolare- kin

Emakumezkoen Kirola Araban 2018- 2022 Programa

Vital Fundazioak asmo handiko plana abiarazi
du aurten, neska eta mutilen arteko berdinta-
suna bultzatzeko kirol arloan. **‘Bai, nahi dut’**
Emakumezkoen Kirola Araban programak bost
urteko indarraldia izango du eta lau proiektu-
tan banatuta dago. Proiektu horiek Araban bizi
diren edo kirola bertan egiten duten **9 eta 16
urte bitarteko neskentzat** dira. Eskola kirola,
kaleko ekintzak, gizarte kontzientziatzea eta
prestakuntza arloetan dihardu.

Proiektu horri esker, emakumezkoen kirolak
gure lurraldean duen egungo egoerari buel-
ta ematea du helburu Vital Fundazioak, izan
ere **neskek parte hartze eskasa dute kirolean**
eta modalitate oso zehatzetan egiten dute,
esaterako, igeriketa, gimnasia erritmikoa edo
dantza. Kirol nagusiei dagokienez, esate bate-
rako, futbola edo saskibaloia emakumezkoen
parte hartzea nabarmena da, gazte edo senior
kategorietara iritsi arte. Katgoria horietan

kirola egiteari uzten diote, etorkizuneko proie-
ktuorik ez dutelako. Gainera, arazo larria dago
prestakuntza mailan, titulazio arautua eskura
dezaketen emakumezko entrenatzaile gutxi
dago eta.

Urte honetan zehar burututako jarduerak:

- **Emakumezkoen futbol campus bi** Agurai-
nen. 8 eta 16 urte bitarteko 50 neskek hartu
zuten parte campus bakoit-
zean.
- **Emakumezkoen kiroleko lau
torneo**, 7 kirolean aritu ziren
(futbola, saskibaloia, badmin-
tona, pilota, errugbia, tenisa
eta boleibola)
- Torneo guztien artean 515 neskek hartu zu-
ten parte, honela banatuta:
 - Aurkezpen torneo: 104 neska.
 - 3x3 torneo Espainia plazan: 172 neska
 - Olarizuko torneo: 57 neska
 - Gabonetako torneo: 182 neska
- **Hogei masterklase erreferentziako kirola-
riek emanak** (futbola, boleibola, errugbia,
waterpolo eta atletismoa) Vitoria-Gastei-
zko eta Arabako 10 ikastetxetan emanak.
8 eta 16 urte bitarteko 1.755 neska-mutilek
hartu zuten parte.
- **Emakumezko futbol epaile prestakuntza**
Arabako Futbol-epaileen Batzordearekin
elkarlanean. 10 neskek hartu zuten parte.

**‘Emakumezkoen kirola? Bai,
nahi dut’ programan 9 eta
16 urte bitarteko 2.500 nes-
ka-mutilek hartu zuten parte
2018an.**



Oinarrizko kirola

Vital Fundazioaren jarduera lerroetako beste bat oinarrizko kirola da, tresna oso baliagarria baita jarduera fisikoa, ohitura osasuntsuak eta laguntasun edo berdintasun baloreak sustatzeko gazteen artean.

Vital Fundazioak **300 hitzarmen** inguru sinatu ditu, gazteen artean jarduera fisikoa sustatzera bideratuak: futbol klubak (Nanclares, San Martín, Ariznabarra, San Ignacio, Arabako Errioxako Luzerna Futbol Kluba edo Zaramaga); txirrindularitza (Txirrindularitzako Arabako Federazioa, Zuyano, Durana Txirrindularitza Elkartea edo Arabarrak); atletismoa (La Blanca edo Audio Atletismo Kluba); saskibaloia (Araski, Araberri); gimnasia (Gimnasia Arabako Federazioa, Oskitxo eta Suprarítmica gimnasia klubak, Mayuelu Kirol Gimnasiakoa). Gainera, Gasteiz mendi-kluba, Eharialde emakumezkoen eskubaloia kluba, Gasteiz tenis kluba, Boleiboleko Ekhitarrak, Lautada Waterpolo kluba, eta oinarrizko kirola sustatzen duten bere federazio guztiak, lurraldeko beste kolektibo batzuen artean.

Kirol inklusiboa

Vital Fundazioa kirol inklusiboan berdintasun baloreak sustatzen saiatzen da eta eskura

duen laguntza ematen du, kirola eta bizitza eremu bakarra eta inklusiboa izan daitezen.

Horregatik, 2000. urtetik lankidetzak hitzarmen du **Zuzenak Fundazioarekin** eta azken ekitaldian 35.000 eurora iritsi da ekarpen hori. ‘BSR Zuzenak-Vital Fundazioa’ taldea babesteaz gain, hitzarmen horri esker, fibromialgiari edo sorbalda osasuntsuari buruzko tailerrak ere antola daitezke hitzarmenari esker, eta urtero 1.000 ikasle baino gehiagori heltzen zaien eskola-kanpaina ere bai.

Gaztedi Rugby Taldea **errugbi eskola eta errugbi talde inklusiboa** duen kluba da. Vital Fundazioak babesa ematen dio lankidetzak hitzarmen baten bidez. Hartara, kirola egitea sustatzen du, Down sindromea duten pertsonen gaitasunak hobetzeko tresna den aldetik, baita gizarteratze-tresna izan dadin ere.

Era berean, **gizarteratze-programa batzuk** ere babesten ditu Fundazioak gizartetik baztertzeko arriskuan dauden neska-mutilekin, esaterako **Arabako Boxea Federazioarekin** sinatutakoa. Erakunde horrek emakumeentzako sensibilizazio ekintzak ere burutzen ditu, genero berdintasuna eta autodefentsari dagokionez.

2018an, **Mendi Solidarioak Elkartearekin** eta **“Ametsak bete”** euren programarekin zegoen



hitzarmena ere berriztu zen. Programa horrek mendia dibertsitate funtzionala duten pertsonen hurbiltzea du helburu, baita boluntario gehiago prestatzea ere, amets horiek bete daitezzen.

Vitoria-Gasteizko Triatloia

Vitoria-Gasteizko Triatloiak hamabigarren edizioa bete zuen aurten eta Vital Fundazioak urrats garrantzitsua eman du ekitaldi horren babesle nagusi bihurtuta. Urteko kirol ekitaldi handiena da gure lurraldean, arabarrek duten parte hartzeagatik ez ezik, nazioarteko proba delako ere, herrialde askotako kirolariak ekartzen baititu gure hirira.

Parte hartu zuten **2.590 triatletek** eta edizio guztietan izan duen arrakasta esanguratsuak munduko erreferente bilakatu dute proba hori, dituen triatloi mota bietan: *half* eta *full ironman*. Hasieran, igeriketa atal bat Ulibarri-Ganboako urtegian, bigarren atalean, errepedeko txirrindularitza Arabako lautadan zehar, eta hirugarrenik, amaitzeko, oinez hiriko kaleetatik. Hiru atal horiek kirolaren berezko baloreak gure inguruko natura eta kultura ondarearekin uztartzen dituzte.

Aurten berrikuntza bat egon da, Vital Fundazioak eta Vitoria-Gasteizko Triatloiak **‘Triatloia eta emakumea’** abiarazi dute, diziplina hori emakumezkoen artean zabaltzeko eta sustatzeko programa berritzailea. Vital Fundazioak abiarazitako Emakumezkoen Kirola Araban 2018-2022 Programan sartuta, **emakumeak distantzia ertaineko eta luzeko triatloia egite-ra bultzatzea** du helburu ekimen horrek, hiru urtetan, emakumeen % 10eko parte hartzetik indize orekatuagoetara iritsi daitezen.

Hiru Haundiak

Urriaren 20an, larunbata, Hiru Haundiak probaren XXI. edizioa burutu zen. **Manuel Iradier**

Txangolari Elkarteak antolatuta, Vital Fundazioaren laguntzaz, erresistentzia handiko edo ultra fondokoa deritzon mendi proba da. **Etapak bakarrean** egiten da eta **Euskadiko hiru gailur altuenak** igo behar dira: **Gorbea, Anboto eta Aizkorri**. 1987an hasi zen egiten eta ordutik finkatzen joan da, Euskal Autonomia Erkidegoan erreferentziako mendi proba izan arte, enblematikoa eta funtsezkoa hiru lurraldeetarako.

Irteera larunbateko gauerdiko 00:00etan da, eta amaiera egun bereko 24:00etan. **101,6 kilometro** ditu eta desnibel metatu positiboa 5.126 metrokoa da, mendi baxu eta ertaineko bideetan zehar.

XXI. edizio honetan **1.711 izena emate** egon ziren, egin ziren 3.000 eskarien artean urtarrilean egin zen zozketaren ondoren. Horietako gehienak, % 86, Euskadikoak, Frantzia, Alemania eta Poloniako atletak egon baziren ere. Emakumezkoaren parte hartzearen gorakada azpimarratu behar da. Aurten **171 emakume** lehiatu ziren **proban, aurreko edizioan baino % 10 gehiago**.

Guardiako herri krosa

Peña los Zaborricos Kultura Elkarteak urtero antolatzen du Vital Fundazioaren laguntza duen lasterketa hori. Helburu bikoitza du: kirol helburua, herritarrak kirola egiteak duen garrantziaz sentsibilizatzeko eta, beste aldetik, ohiko turismoaren aukera izatea, Guardiako hiribildua beste ikuspegi batetik ezagutu eta gozatzeko.

Irailaren 15ean, **290 parte hartzaile** irten ziren eta 'zangoak apurtzeko' zirkuituari ekin zioten hainbat zoru desberdinetatik, esaterako, Guardia hiribilduko alde zaharra, bertako jauregi-etxe eta harresi artean. Herriko zenbait upategi esanguratsuren bihotzetik igaro eta herri hau betetzen duten mahastiz jositako paisaia zeharkatu zuen.

Peña los Zaborricos elkartearen 65. urteurrenaren ospakizunean ere parte hartu zuen Vital Fundazioak.

Beste zenbait kirol proba

Vital Fundazioaren beste jarduera-ildoetako bat kirolaren kultura arabarren artean sustatzea da, osasunaren, lehiakortasun onuragariaren eta talde-lanaren eragile den aldetik. Hori dela eta, balio horiek sustatzen dituzten zenbait kirol proba babesten ditu erakundeak.

Izaera horren adibide bat da **Vitoria-Gasteizko enpresen lasterketa**, izan ere, urtero 70 enpresa eta horietako 600 langilek baino gehiagok hartzen dute parte. Parte hartzaileen artean jarri osasuntsua sustatzea du helburu nagusi, hau da, kirol ohitura langileentzako topagune bilakatzea. **Arabako Errioxako Maratoi Erdia** ere nabarmendu behar da.

Beste adibide batzuk ere badira **'San Joan gaua' gaueko lasterketa** eta **Estibalitzerako igoera**, esaterako.

Hitzarmenak kultura eta kirol erakundeekin

Urtean zehar hitzarmen ugari sinatu ziren Lurraldeko zazpi kuadrilletako hainbat kultura eta kirol elkarterekin, kultura zabaltzen laguntzeko, kirol-jardueretan parte hartzea sustatzeko eta oinarritzko kirolari laguntza tinkoa emateko probintzia osoan.

Kultura-hitzarmenen artean nabarmendu behar dira Europaren Sustraiak Kultura Elkartea-rekin, 'Gasteizko gudua 1813' Elkarte Historikoarekin, Eskualdeetako Etxeekin mantentzen dituztenak, edo Audio, Amurrio, Kanpezu edo Navaridaseko udalekin sinatutako akordioak, kultura-jarduerak sustatzeko, eta Urizahar, Arrazuz-Ubarrundia, Artziniega, Guardia, Lantaron, Maeztu, Langraiz Okako Udalekin edo Arabako Errioxako Kuadrilla, Aiarako Kuadrilla, Kanpezuko Kuadrillarekin dituenak, besteak beste.

Kirol hitzarmenen barruan honako hauek nabarmentzen dira, Manuel Iradier Txangolari Elkarte, Gasteiz Mendi Kluba, Araberri Saskibaloi Kluba, Arabako Eskubaloi Federazioa edo Artzain-txakurren Elkarte (Arate).

1.3 Gizarte-laguntza arloa

Berakah harrera-proiektua

Vital Fundazioak 2009an Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoko Batasun Pastoralarekin hartu zen konpromisoa berritu du, Arabako gizarteko familia eta pertsona behartsuenen oinarritzko eta berehalako premiak bideratzeko helburuz diharduena.

Horrela, Vital Fundazioak bere oinarritzko premiak asetzeko nahikoa diru-sarrerarik ez duten familientzako, lanpostu bat lortzeko zailtasunak dituzten iraupen luzeko langabeentzako, bestelako laguntzarik jasotzen ez duten edo haien egoera okerrera joan den etorkinentzako, edo funtsezko eskubiderik ez duten eta gizarte-bazterkeriako egoeran daudenentzako ekimena finkatzen laguntzen du.

Berakah programari esleitutako **151.000 euroko** ekarpen ekonomikoaz, akordio honi esker,

151.000 €-ko zuzkidura du Berakah programak eta elikagaiak nahiz jantoki-txartelak banatu zizkien 5.000 bat familia behartsuri.

90.000 kilo elikagai baino gehiago banatu ahal izan dira 5.000 familia behartsuen artean. Beraz, **urtean 20.000 pertsona** inguru artatu direla esan nahi du.

Horrez gain, aholkularitza ere ematen du lege gaietan eta gai juridikoetan nahiz prestakuntzaren eta autoenpleguaren arloetan, arreta psikologikoan, eskola-laguntzan. Bestalde, bitartekaritza-zerbitzua ematen du etxebizitza-kontuetan, bestelako ekin-tzen artean.

Berakah-rekin sinatutako lankidetzaz- hartzarmenaren barruan, Vital Fundazioak beste proiektu bat bultzatu zuen 2015. urtean, eskasia-egoeran dauden zenbait familiari ostatu partekatu bat eskaintzeko, denbora mugatu batez: **Belén Etxea**. Proiektuaren asmoa da ordainketari aurre egin ezin diotenei etxebizitza bat ematea. Ekimena familientzat, adingabeak bere ardurapean dituzten emakumeentzat eta sor litezkeen beste antzeko kasu batzuetarako da. Baliabide hau abian jarrita, Vital Fundazioaren asmoa da etxebizitza eta haren hornidurak ordaindu ezin dituzten familiei oinarritzko ostatu-beharra ematea. Joan den urtean 12 etxebizitza zeuden, 6 boluntarioen zuzendaritzapean, eta 26 familiaren gizarteratzean lagundu zuten, guztira 113 pertsona artatuz.

Halaber, Berakah-rekin egindako akordioak barne hartzen du **Tabgha despentsa solidarioari** emandako laguntza. Ekimen hori elikagaiak eta oinarritzko higie-ne eta garbiketa produktuak saltzen dituen irabazi-asmorik gabeko denda batean gauzatzen da. salgaiak prezio desberdinetan daude, erosten dituzten pertsonen gaitasun ekonomikoaren arabera. San Vicente Parrokiaren atzealdean kokatuta -Berakah-ren lokalen ondoan-, jaki-toki solidarioan bi mota-tako prezioak aurki daitezke: batetik, baliabide

Fundazioaren laguntzari esker, Berakah programak aholkularitza psikologiko eta juridikoa eskaintzen du, baita autoenpleguaren arlokoa ere.

gutxi dituzten familientzat, prezio murriztuen truke erosten dituztenak; bestetik, elikagaiek kalean duten merkatu-prezioan erosten dituzten familientzat. Prezioaren % 100 ordain-

tzearen ondorioz uzten duten marjina familia behartsuenei eskaintzen zaizkien deskontuetarako erabiltzen da.

Despentsa solidarioa proiektuaren barruan, **'Despentsa Solidarioaren Makina'** proiektuak aurrera dirau. Makina hori banagailu bat da eta, euro 1etik hasita, behartsuenentzat izango diren jakien dohaintza egitea ahalbidetzen du, trukean dohaintzan eman den elikagaiaren irudia duen kutxatxo bat ematen du. Joan den urtean, makina hori lekuz aldatu zen, Azoka plazatik Boulevard merkataritza gunera.

Elikagaien Arabako Bankua

Elikagaien Arabako Bankuak 1.800 familia artatzen ditu urtero, Arabako 71 elkartetan integratuak, beraz, **7.500 onuradun baino gehiago daude**.



Vital Fundazioak urtero berriztatzen du duela 18 urtetik Elikagaien Bankuarekin duen lankidetzatza. Joan den ekitaldian, **10.000 euroko** ohiko ekarpenaz gain, **15.000 euroko** beste ezohiko ekarpena ere berritzea erabaki zen, eguneroko banaketan kaloria eta bitamina falta leuntzeko funtsezkoak diren bi elikagai ziurtatzeko: **patatak eta arrautzak**. Laguntza horri esker, 15.545 kg patata eta 8.656 dozena arrautza erosi ziren, hartara, hileko eta onuradun bakoitzeko 8 arrautza eta kg 1 patata banatzea lortu zen (OMEk gomendatzen dituen kopuruen erdia).

Vital Fundazioak Bankuak azaroan probintziako supermerkatuetan egiten duen **elika-gaien bilketa handian** ere laguntzen du eta urtero elikagai kopuru handia biltzea lortzen dute.

Kalteberatasun larrian dauden pertsonentzako arreta

2009. urtetik **Gurutze Gorriak** bere esku-hartzea zabaldu zuen, herrialdeko krisialdi sozioekonomikoak kaltetutako pertsonen laguntza emateko. Arabako Gurutze Gorriak proposatutako esku-hartzea **gizarte larrialdi egoera** lehentasunez artatzea izan da eta pertsonen eta familien larrialdi ekonomikoari eustearena ere, oinarritzko beharrianen estaldura erraztuz, baina, baita euren enplegarritasuna hobetzen lagundu eta zeukatena baino egoera hobean kokatu, lanposturen bat lor zezaten.

Orotara, **12.000 euroko** ekarpena egin du urtean zehar Vital Fundazioak, Vitoria-Gasteizen burutzen den eta **30 eta 65 urte arteko pertsonentzat** den proiektu horretan laguntzeko. Pertsona horiek Gizarte Larrialdietarako Unitatea, "aurrezki bonoa" prestazioa eta/edo elikagaien prestazioa programetan artatutakoak izan behar dute.

Jarduera eremu guztien artean, eskubideei, osasun sistemarekin zerikusia duten tramiteei

eta baliabideei, gizarte eta/edo komunitate baliabideei buruzko orientazioa eta aholkularitza nabarmentzen dira, baita laguntza psikologikoa eskaintzea edo esku-hartze plan indibidualak egitea. Hartara, isolamendua eta muturreko kalteberatasun egoerak kroniko bilakatzea saihestea da helburua, batez ere immigratzaileen artean. **126 emakumek eta 41 gizonek** jaso dute laguntza.

Gizarte bazterketaren aurkako beste zenbait proiektu

Vital Fundazioak bazterketa arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko lan egiten duten elkarteek garatzen dituzten programak babesten jarraitu du.

Horrela, hainbat hitzarmenak berrituz dira, hala nola **AGLE Elkartearekin** sinatutakoa. Bere helburu nagusietako bat guraso bakarrek familien, immigratzaileen eta genero-indarkeriaren biktimen arreta eta gizarte-sustapena, gai sozialetan eta pertsonaletan gidatuz. Erakundeak **6.000 euroko** ekarpena egin du orotara, **Loremaitea** programara bideratua, baliabide ekonomiko nahikorik, ezta gizarte-laguntza sarerik ere, ez duten guraso bakarrek familietako adin txikikoei laguntza emateko zerbitzua, beste zerbitzu arautu batek estaltzen ez duen euren aita/amen lan edo prestakuntza ordutegian zainduta egon daitezen.

Era berean, lankidetzatza-hitzarmen bat bultzatu da **INSOLA Elkartearekin**, **'Aldi baterako etxebizitzak'** programa abiarazteko, gizarte bazterketan dauden pertsonak artatzeko. **10.000 euro** bideratu ditu Vital Fundazioak, **10 pertsona hartzeko lau etxebizitzaren** lagapenerako. Pertsona horiek, INSOLA tailerretan aritu direnean, gizarteratzeko eta laneratzeko euren gaitasuna erakutsi behar izan dute, emantzipazio adinera iritsi direlako, droga-mendekotasun ohituretatik segurtasunez atera direlako

edo DSBEdo GLL jasotzeari utzi diotelako, eta gizarteratzeko arrazoizko epealdi bat behar dutenean.

Vital Fundazioaren laguntzak **8.900 €-ko** ekarpena egin dio **Calí programaren** garapenari. Programa hori Emakume Ijitoen Aukera Berdintasuna eta Gizarteratzea eta Laneratzea sustatzeko eta askotariko diskriminazioa artatzeko da. **Fundación Secretariado Gitano (FSG)** delakoak hainbat abiarazten jarraitu du Araban, besteak beste, Arabako ijito-komunitateak erabateko hiritartasuna lor dezan laguntzeko, euren biziz-baldintzak hobetzeko, tratu-berdintasuna sustatzeko, diskriminazio mota guztiak ekiditeko, baita euren kultura-identitatearen aitortza sustatzeko ere.

Proposamen horri esker emakume ijitoaren segmentu berezi bat estaltzen da, muturreko kalteberatasun egoeran daudenena, hain zuzen ere, sektore horretara ez baitira zerbitzu eta baliabide publikoak iristen, ezta beste erakunde batzuetako ekimenak eta programak ere, nahiz eta gizarte bazterketan bizi diren emakumeen profilekin lan egin.

Araba minbiziaren aurka

Urtero zenbait ekitaldi antolatzen dira Vitoria-Gasteizen, minbizia gaixotasun ardatz dutela, minbiziaren gaixotasuna normalizatze eta jendea prebentzioaren aurrean sentikor bihurtzeko. **Minbiziaren Aurkako Arabako Elkartek** antolatzen ditu, Vital Fundazioaren laguntzarekin, bi erakundeek duten lankidetzaz hitzarmenari esker. Iaz, **22.000 euroko** ekarpena izan zuten hitzarmen horren eskutik.

Joan den urriaren 7an Vital Fundazioaren laguntza aktiboarekin antolatutako **Minbiziaren aurkako IV. martxa** egin zen. Proba ez da lehiatzekoa eta Araban AECCri lagundu nahi dion edozein pertsonak parte har dezake. Diru-bilketa osoa elkartearen programak eta jar-

duerak finantzatzeko erabili zen: laguntza integrala paziente eta senideei, prebentzioa, detekzio goiztiarra eta gaixotasunaren ikerketa. Minbiziaren aurkako IV. Martxak **2.250 partaidetik gora izan zuen**, beraz, aurreko edizioaren partaidetzaren datuak bikoiztu zituen. Vitoria-Gasteizetik egiten den ohiko ibilbide horri beste martxa bi bildu zitzaizkion iaz, **Amurrión eta Oionen**, hain zuzen ere.

Halaber, eta Vital Fundazioak AECCri laguntza eman zion musika klasikoko ongintza kontzertu bat antolatzeke. Apirilaren 22an izan zen eta 'Gasteizko Bakarlariak Taldea' izan zen protagonista.

ELAren aurkako martxa Haran-nan

Ikerketari eta gaixoentzako euskarriari laguntza emateko ELAren aurkako Haraneko lehenengo Martxa Solidarioa antolatu zen irailaren 29an, larunbata, eta Vital Fundazioaren babesa izan zuen. Ulibarri-Arana izan zen irteera eta helmuga puntua. **Hiru ibilbide desberdin** ziztuen probak, parte hartzaileen aukeren arabera egitekoak, **7 eta 16 kilometro arteko** distantzietan. Bildutako dirua gaixotasun horren kontra borrokatzen duten hiru kolektibotara



bideratu zen: AdELA Euskal Herria-Araba, Fundela eta Luzón Fundazioa.

Haranako herrietan egindako izena emateak kontabilizatu ostean, parte hartu zuten **pertsonek orotarako zenbatekoa 1.062ekoa izan zen**. Horietatik, 800etik gora programatutako lasterketetan aritu ziren eta gainerakoek 'zero' dortsalaren bitartez hartu zuten parte.

Haurren aurkako bortizkeriaren prebentzio-programa

Haurren eskubideen defentsan eta sustapenean lan egiten duen **Save the Children** GKEk programa berritzailea abiarazi zuen 2017ko irailean, baloreetan oinarritutako heziketan eta sensibilizazioan ardatzuta. 'Haurren aurkako bortizkeriaren prebentzioa' izenpean, haurren aurkako bortizkeriatik aske dagoen gizartea bermatzea du helburu proiektuak, prebentzioaren eta babesaren bitartez.

Vital Fundazioak programa horri laguntza ematen jarraitu zuen urtean zehar. **'SAVEmpathy: Berdinen arteko gatazkaren aurre eskuhartze emozionala. 2. fasea'** proiektuaren bitartez, indarkeria egoeretan bizi diren haur gasteiztarrei laguntza ematen jarraitu zen, ekintza berritzaile eta jarraikakoen bidez. Adin txikikoentzako tailerrak izan ziren, baita euren familientzat (gurasoentzat) eta artatzen dituzten profesionalentzat ere. Haurrak eta gazteak hezkuntza arlotik artatzen dituzten profesionalak ere inplikatu ziren, eta berdinen arteko indarkeriaren prebentzioan nagusiek duten erantzukizunean jarri ziren arreta eta indarra.

Prestakuntza programa hori tresna praktikoa suertatu da, bai emozioak antzemateko, baita horiek kudeatzeko ere, erantzun enpatikoa handitzeko edo eskola-eremuan tratatu txarren prebentzio-baliabideak mugiarazteko helburuz.

Eginaren eginez

Eginaren Eginez, **Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonek Arabako Elkarteak** 1979ko uztailaren 29an sortu zen, desgaitasun fisikoa duten pertsonek gizarteratzera bideratutako lana koordinatzeko helburuz, gizartearen arlo guztietan.

Vital Fundazioak emandako **10.000 euroko** laguntza gizarte komunikazio eta sensibilizazio kanpaina bat abiarazteko bideratu da oraingo honetan, **EZ DUT IKUSEZINA IZAN NAHI** lelopean, oro har herritar guztiei zuzendua, dibertsitate funtzionala duten emakumeek **diskriminazio bikoitzari egin behar diotela aurre 'ikusgai egiteko', desgaitasun fisikoa/ dibertsitate funtzionalagatik eta generoagatik**.

Proiektu hori salaketa informatiboa eta sensibilizazio kanpaina egiteko planteatu zen eta kanpoko grafika, gerrila ekintzak eta Internet bidez hedatu zen.

¡Mójate! – Busti Zaitetz!

Vital Fundazioak eta **AEMAR – Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkarteak 'Mójate-Busti Zaitetz'** ekimenaren XXI. edizioa egin zuten uztailaren 15ean, esklerosi anizkoitza duten pertsonen sentsibilizazio eta solidaritate kanpaina. Jarduera nagusia Estadio Fundazioaren instalazioetan egin zen, baina Arabako beste igerileku batzuetan ere burutu ziren hainbat jarduera.

Kanpaina honen antolaketa Vital Fundazioak eta AEMAR – Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkarteak urtero sinatzen duten lankidetzaren hitzarmenaren eskutik dator. Lankidetzaren horri esker, fondoak biltzeko eta esklerosi anizkoitzaren gainean herritarren sentsibilizatzeko programatutako kanpainak finantzatzen dira. Gainera, 'Hipoterapia' jardueran zaldietara iris-



teko beharrezkoa zen arrapala bat erosteko AE-MAREk luzatu zion eskaerari ere erantzun zion Vital Fundazioak.

Araberri 17 kausa

2013. urtetik ematen dio laguntza Vital Fundazioak **Araberri Basket Klubari**, klubaren oinarrizko saskibaloia bultzatzeko, eta 2017an aurkeztu zuten **'17 kausa'** proiektua, ekintza solidarioa garatzeko, hainbat elkarte eta kolektiborekin, Klubak Mendizorrotzako Pabilioian jokatzeko duen partida bakoitzean.

Ekimenak parte hartze eta eragin arrakasta handia izan du, bai klubean, bai parte hartu duten kolektiboetan, esate baterako, Elikagaien Bankua, AECC, Aspanafoha, Acabe, Berakah, Apasos, 4 Torres Elkartea, e.a.



Aurten ere aurkeztu dute ekimena eta gure erakundearen izena emateko aukera eskaini digute, **'Vital Fundazioa 17 Kausa'**.

Desgaitasunari, gaixoei edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonei lotutako diharduen elkarte-sarearentzako laguntza

Ekitaldi honetan zehar **beste 68 lankidetzahitzarmen** sinatu dira, zenbait arazo dituzten pertsonen hainbat kolektiboekin. Horien artean hauek aipa daitezke:

1. AAE (Epilepsiaren Arabako Elkartea)
2. AAL (Laringektomizatuen Arabako Elkartea)
3. ACABE (Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Arabako Elkartea)
4. ACCU ARABA (Crohn eta Kolitis Ultzeradun Gaixoen Arabako Elkartea)
5. ADALAVA (Diabetikoen Arabako Elkartea)
6. ADAP (Presoei Laguntzeko Elkartea)
7. ADELA (Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Elkartearen Federazioa)
8. ADEAR (Artritis Erreumatoide eta Espondilitis Gaixoen Arabako Elkartea)
9. ADELES (Lupus gaixoen Arabako Elkartea)
10. ADELPRISE (Linfedema Primarioa eta Sekundarioa dutenen Arabako Elkartea)
11. AEFAT (Ataxia Telangiektasia Familiaren Espainiako Elkartea)
12. AEMAR (Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkartea)
13. AFA ARABA (Alzheimer gaixotasuna eta beste dementziak batzuk dituzten gaixoen senideen Arabako Elkartea)

14. **AI LAKET!!** (Gazteen lonjen erabilera ludi-koari lotutako arriskuak murrizteko elkar-tea)
15. **ALCER** (Giltzurruneko Gaixotasunen Aurka Borrokatzeko Arabako Elkarte)
16. **AMAPASE** (Ama eta Aita Bananduen Ara-bako Elkarte)
17. **APDEMA** (Adimen Desgaitasuna duten Per-tsonen aldeko Arabako Elkarte)
18. **ARABAKO GORRAK** (Arabako Pertsona Go-rren Elkarte)
19. **ARABARNE** (Hizkuntza beharizan bereziak dituzten haurren gurasoen elkar-tea)
20. **ARENE** (Gaixo Neuromuskularren Arabako Elkarte)
21. **ARESBI** (Arantza Bifidoa eta Hidrozefalia-ren Arabako Elkarte)
22. **ASAFES** (Gaixotasun Mentala duten Per-tsonen eta Senideen Arabako Elkarte)
23. **ARNASA ARABA** (Fibrosi Kistikoaren Ara-bako Elkarte)
24. **ASAFIMA** (Fibromialgia eta Neke Kroni-koaren Sindromearen Arabako Elkarte)
25. **ASAMMA** (Bularreko minbizia eta/edo gi-nekologikoa duten emakumeen Arabako elkar-tea)
26. **ASCUDEAN** (Adinekoak Zaintzen dituzten Senideen Elkarte)
27. **ARABAKO BAKELEKUA ELKARTEA** (Kanpa-mendu sahararretan errefuxiatua dauden haurren aldeko elkar-tea)
28. **AUTISMO ARABA ELKARTEA** (Autismoaren eta garapeneko beste nahaste batzuen Ara-bako elkar-tea)
29. **BIDEGURUTZEA ELKARTEA** (Gizarte Bazter-keta Arazoak dituzten Pertsonak Artatzeko Elkarte)
30. **ETXEA JOSU ELKARTEA** (Etxea Josu Abegi Elkarte)
31. **GIZARTERAKO ELKARTEA** (Emakume prostitutentzako abegia eta orientazioa)
32. **GURE BIDEA ELKARTEA** (Gizarteratzeko elkar-tea)
33. **KOKUK ELKARTEA** (Gizarte-heziketako Esku-hartze)
34. **KULUNKA ELKARTEA** (Garapen asaldura du-ten haurren arretarako elkar-tea)
35. **PRESTATURIK ELKARTEA** (Atzerriko profe-sionalen Arabako Elkarte)
36. **SAGRADA FAMILIA CHERNOBIL ELKARTEA** (Chernobileko haurren abegirako familien elkar-tea)
37. **IKIRIKI ELKARTE SOZIOKULTURALA** (ongi-zate psikosoziala eta animaliekiko eta na-turarekiko elkarreagina sustatzeko elkar-tea)
38. **TALUR ELKARTEA** (Desgaitasun intelektua-la duten pertsonen aisialdi eta denbora li-brerako elkar-tea)
39. **ZUBIA GURUTZATZEN ELKARTEA** (Gizarteratzeko eta laneratzeko tailerrak egiteko elkar-tea eta ekimen etxea)
40. **AISIALDIRAKO KARMELITEN ELKARTEA**
41. **ASOPARA** (Parkinson Araba Elkarte)
42. **ASPACE** (Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aisialdi eta denbora librerako elkar-tea)
43. **ASPANAFOA** (Minbizia duten haurren gura-soen Arabako elkar-tea)
44. **ASPASOR** (Gorren gurasoen eta lagunen Arabako elkar-tea)
45. **ATECE** (Hartutako Kalte Zerebralaren Ara-bako Elkarte)
46. **ELIZBARRUTIKO CARITAS** (Gasteizko Elizba-

- rrutiko Caritas)
47. CORAZÓN SIN FRONTERAS (Gaixo kardio-baskularren eta euren familien bizi-kalitatea hobetzeko elkarte)
 48. DOWN ARABA ISABEL ORBE (Down Sindromearen Isabel Orbe Arabako Elkarte)
 49. ERANTSI (Arazo Mentalak eta Alkoholismoa duten Pertsonen Laguntzeko Elkarte)
 50. EZEBA (Zeliakoen eta Zeliakoen Familien Arabako Elkarte)
 51. FEVAPAS FEDERAZIOA (Gorren Gurasoen eta Lagunen Elkarten Euskadiko Federazioa)
 52. ADSIS FUNDAZIOA (Gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta inklusiboagoa eraikitze fundazioa)
 53. AYUDA EN ACCIÓN FUNDAZIOA (Pobrezia- ren eta desberdintasunaren aurka borroka- tzen duen elkarte)
 54. CORAZONISTAS FUNDAZIOA (Heziketa- rako, sentsibilizazioarako eta garapenerako nazioarteko lankidetzarako fundazioa)
 55. ITAKA ESKOLAPIOAK FUNDAZIOA
 56. JAIKI FUNDAZIOA (Droga-mendekotasuna duten eta gainditzeko bidean dauden per- tsonen fundazioa)
 57. BEROA TUTORETZA FUNDAZIOA (Gaixo mentalen Arabako tutoretza fundazioa)
 58. USOA TUTORETZA FUNDAZIOA (desgaita- sun intelektuala duten eta babesgabezia egoeran dauden pertsonen tutoretza fun- dazioa)
 59. GIZABIDEA (Presoen defentsarako elkar- tea)
 60. GUREAK ARABA (Desgaituentzako Enplegu Zentro Berezia)
 61. HAR-EMAN (Desgaitasun intelektuala du- ten pertsonen gizarteratzea sustatzeko elkarte)

62. HOGAR ALAVÉS (Hogar Alavés Elkarte, gaixotasun mentala duten pertsonen erre- habilitaziorako)
63. ITXAROPENA (Ikusmen Desgaitasunaren Arabako Elkarte)
64. MATRIOSKA (Errusiako Hizkuntza eta Kul- tura Arabako Haur-Elkarte)
65. ONCE (Itsuen Erakunde Nazionala Araban)
66. SIDALAVA (Ihesaren aurkako Arabako Herri- tarren Batzordea)
67. TEL-EUSKADI (Hizkuntza Nahasmendua duten Pertsonen Familien eta Lagunen Elkarte)
68. ITXAROPENAREN TELEFONOA (Itxarope- naren eta adiskidetasunaren telefonoaren Arabako elkarte)

Vitalquiler

2001. urtean abian jarri zen une horretan Vito- ria-Gasteizen arrazoizko prezioaren truke alokai- ruan zegoen etxebizitza-eskaintza eskasari erantzuteko. Vitalquiler gizarte-programa da, etxebizitza bat izateko zailtasunak dituzten pertsonentzat.

Hasiera batean proiektuaren xedea Arabako gazteek gurasoen etxetik joateko beharrari erantzutea zen, diruz lagundutako alokairuak eskainiz, lan-merkatura sartzen ziren bitar- tean. Hala ere, gizartearen bilakaerak eta haien etxebizitza-beharrek programa herritar guztiei zabaltzea ekarri dute, adin-mugarik gabe.

Vitalquiler proiektu aitzindaria da eta erreferentzia gisa balio izan du beste erakundeetan egindako antzeko ekimenetarako. Hainbat sari jaso ditu.

Ideia berritzaile horri esker, **7.000 pertsonak** baino gehiagok etxebizitza duin bat eskuratu dute arrazoizko prezio baten truke. Vital Fundazioak **15 milioi** euro bideratu ditu ekimen horretara, sortu zenetik. Aukera horretaz baliatuz, gurasoen etxetik joateko aukera izan dute, bizitza berri bati ekin diote edo familia bat osatu dute.

Vitalquiler programak baldintza hauek eskaintzen dizkie errentariei:

Adin nagusikoa edo emantzipatuta dagoen adingabea izatea

Etxebizitarik ez izatea

Euskadin erroldatuta egotea

3.000 eta 39.000 euro arteko diru-sarrerak izatea (kide bateko familia-unitateak)

Abenduaren 31n Vitalquiler-ek **869 etxebizitza** zituen, urteko batez besteko errenta 6.100 eurokoa zen eta urteko batez besteko diru-laguntza 732 eurokoa.

+55 laguntza programak

Vital Fundazioak adinekoentzako berariaz diren bi laguntza-proiektu bultzatzen ditu.

Nabarmentzekoa da **komunak egokitzeko** programa. Ekimen hori, hirurogeitik gorako pertsonen etxebizitzetako bainugelak egokitzeko da. Horrela, segurtasunez eta modu autonomoan erabiltzen laguntzen duten elementuak jartzen dira, istripuak saihesteko. Programa abian jarri zenetik 2.682 eskaera jaso dira guztira, eta horietatik, **2.294 lan amaitu egin dira abenduaren 31rako**.

+55 laguntza programak	
Komunak egokitzeko programa	46 diru-laguntza
Estimulazio kognitiboko tailerrak	360 parte-hartzaile
Guztira	406

1.4 Hezkuntza, Prestakuntza, Enplegua eta Ikerketa arloa

Lanbide Heziketa, lehentasuna

Vital Fundazioak konpromiso historikoa du Araban Lanbide Heziketaren garapenarekin. Horrela, Egibide Lanbide Heziketa zentroaren finantzaketan laguntzen du. Lankidetzak horrek 570.000 eurotik gorako ekarpena izan du, eta ekarpen horri esker, zenbait ekintza egin ditu lanbide-heziketa sustatzeko, hala nola lan eta ekipamenduetarako ezohiko laguntza-programa, irakasleak prestatzeko programa, tituludunentzako berriazko beka-deialdia, lanbide-heziketa sustatzeko kanpainak eta derrigorrezko irakaskuntza amaitzea lortu ez duten pertsonentzako lanbide-hastapenetarako zikloa.

Halaber, Vital Fundazioa Arabako **Lanbide Heziketako Partzuergoko** kidea da Eusko Jaurlaritzak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera, eta bere urteko aurrekontuaren defizitaren % 20 ematen dio. Ekarpene hori funtsezkoa da zentroen funtzionamendurako eta zuzenean ikasleentzat da onuragarria, familiek gutxiago ordaindu behar dutelako irakaskuntzaren truke.

Fundazioak 570.000 € baino gehiago bideratzen ditu Egibide LH zentroko 7.000 ikasleen lanbide-heziketa sustatzeko



Aurtengo lankidetz hitzarmenak berariazko zuzkidura bat barne hartu du **Egibideren 75. urteurrena ospatzeko egin ziren ekitaldiak eta argitalpenetara** bideratuak, baita ikasle etorkinei oinarritzako prestakuntza-tresnak ematen dizkien **Harrera Gelaren** jarraipenerako ere. 2017an abiarazi zen proiektu hori.

Egibideren zentroek 450 hezitzaile dituzte, eta 7.000 ikasle baino gehiago hezten dituzte bertako geletan.

Hezkuntza programak

Genero indarkeriaren prebentziorako kanpaina

Vital Fundazioak eta Gurutze Gorriak **gazteak bakearen kulturen eta indarkeriarik ezean hezteak** helburutzat duen kanpaina bat garatzen dute. Horrela, gatazkak, bitartekaritzaren bidez, modu baketsuan ebazten erakusten diete. Halaber, genero-identitatearen eta pertsonen arteko erlazioen konfigurazioan eragiten saiatzen da ekimena, gizonen eta emakumeen artean egon diren botere-harremanetarako aukera sortuz eta elkarriketan eta negoziazioan oinarritutako berdintasunezko harremanak eta harreman demokratikoak sortzeko jarraibideak emanez.

Proiektu hau 2002. urtean abian jarri zenetik **27.300 ikasle** parte hartu dute ekimen horretan. Aurten, Arabako Bigarren Hezkuntzako 28 ikastetxetako 12 eta 16 urteko bitarteko **3.057 ikasle** hartu dute parte kanpainen.

Vital Fundazioak **44.000 euroko** ekarpena egin zuen ekitaldi honetan, gazteen artean genero-indarkeriaren prebentzioaren aldeko apustua berritzeko.

Hiesa eta sexualitatea geletan

Kanpaina honen helburua ikasleen artean jokabide arduratsuak sustatzea da, GIBagatiko infekzioa prebenitzeko eta sexualitatearen ezagutza zabal eta positiboa izateko, 'Geletan hiesa prebenitzeko eta sexualitateari' buruzko kanpainaren barruan.

Programa Hiesaren kontrako Arabako Herritarren Batzordearen (**SIDALAVA**) laguntzarekin garatzen da, eta asmoa herritar gazteak banako eta gizarteko erantzukizunean prestatzea da, GIBagatiko infekzioa prebenitzeko eta sexualitatearen inguruko ezagutza zabal eta positiboa emateko, metodo antikonzeptiboak eta jokabide sexual seguruei buruzko informazioaren bidez.

Beste ekimen berritzaile bat ere abiarazi da, informazioa hurbildu eta prebentzio eta heziketa eskuhartzearen helmena hedatzeko helburuz, joan den ikasturtean lerro mugikor batean artatzeko aukera finkatu zen, gateen **Whatsapp bidezko kontsultak** egiteko aukera izan dezaten, hartara, erantzunaren berehalakotasuna bermatzen da.

Kanpainak **45.000 euroko** zuzkidura izan zuen, eta 15 eta 19 urte arteko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat izan zen. 2017-2018 ikasturtean zehar 37 ikastetxetako 2.307 nerabek hartu zuten parte programan.

Proiektu hori 2000. urtean abian jarri zenetik **34.600 ikaslek baino gehiagok** parte hartu dute prestakuntza-ekimen horretan.

Gosari osasungarriak

Arabako ikastetxe guztietako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako programa da hau eta Vital Fundazioak eta Lac-turalek antolatzen dute, lankidetzan. Eguneko gosari egokia egitearen garrantziaz kontzientziatzea du helburu. 2018an gosari osasungarrien laugarren edizioa burutu da, **Arabako 6 ikastetxetako 431 ikaslek** egin dituzten **tailerren bitartez**. Proiektua dohainik da egin nahi duten ikastetxeetarako. Gosari oso eta osasungarri batek zer elikagai izan behar dituen ezagutzeko aukera ematen zaie ikasleei.

Cosmium

Vital Fundazioak **'Cosmium, izarretako bidaiariak'** proiektu berritzailea jarri du abian, zientzia eta ingurumena bateratzen dituen diziplina anitzeko hezkuntza-ekimena. Astronomia Arabako ikasleei hurbiltzea eta argi-kutsadurarekiko sentsibilizatzea ditu helburu ekimenak.

Hala eskatzen duten Arabako ikastetxeetan doan instalatzen duten **planetario mugikorri** esker (360 gradu, 6 metroko diametroan oinarria eta 3 metro garai), ikasleek zenbait gaitasun garatzen dituzte, hala nola kultura zientifikoaren eta teknologikoaren gaitasuna, matematika-gaitasuna, gizarterako eta herri-tartasunerako gaitasuna. Ikuspegi ludiko eta esperimental batetik, proiektuaren helburua da biztanlerik gazteenak zeru garbiek gizakientzat duten garrantziaz jabetzea eta horrekiko sentikor bihurtzea. Horrela, ondare horrek zientziarako, hezkuntzarako, kulturarako eta, noski, bizi-kalitatearen faktore gisa duen balioa azaltzen zaie.

Edukiak taldekideen adinera egokitzen dira eta **gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez** ematen dituzte begirale adituek. Horrez gain, astrono-

miarekin zerikusia duten erakunde ofizialen materialetan oinarrituta daude, eta teleskopio handiek (lurtarrek nahiz estralurtarrek) egindako benetako irudiak eta software espezializatuak egindako simulazioak erabiltzen dituzte. Jarduera Susana Malón fisikari eta astronomoak koordinatzen du.

Cosmim programa 31 ikastetxetara eraman du ten 2018. urtean eta Haur Hezkuntzako eta Batxilergoko **6.171 ikaslek** hartu dute parte.

Mugarik gabeko bihotza

Gaixotasunen prebentzioa eta ezagutza da ikasleentzat abian jarritako eta Vital Fundazioaren laguntza duen beste hezkuntza-proiektuetako bat. Ekimena **Mugarik gabeko Bihotza Elkartearekin batera** bultzatzen da eta DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzenduta dago, bihotz-biriketako bizkortzeari eta desfibriladoreen erabilerari buruzko oinarritzko ezagutzak beregana ditzaten. Horrez gain, gaixotasun kardio-baskularren prebentzioari buruzko dibulgazio hitzaldiak ere ematen dira.

Urtean zehar, **65 klase** eman dira Arabako zenbait ikastetxetan eman da eta **1.625 ikaslek** hartu dute parte.

Guraso eskola

Vital Fundazioak Vitoria-Gasteizko Aurrera Kirol Klubarekin batera, **seme-alabek kirola egiten duten bitartean gurasoen portaera hobetzeko** proiektua abiarazi du, bereziki futboleko. 'Guraso eskolaren' bitartez, kirolekoak ez diren jarrerak eta portaerak murrizteko zortzi tailer antolatu dira, kirol guztietarako oro har eta oinarritzko futbolerako, bereziki.

Tailerrek parte hartzea, hausnarketa eta elkarrizketa sustatzea zuten helburu, baita debate irekia eta parte hartzailea erraztea ere. Gurasoek elkarbizitza hobetzeko tresnak hartu zituzten, baita entrenatzaileekin komunikatzeko jarraibideak ere, kritikak formulatzeko estrategiak edo etsaitasuna eta haserrea

kontrolatzeko jarraibideak, besteak beste. Lehendabiziko urte honetan **30 familiek** hartu dute parte.

HEI Txiki, hiritartasun eskola

Vitoria-Gasteizko Udalaren Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzutik Vital Fundazioak HEI (Herritartasunerako Eskola Irekia) programan parte har dezala proposatu zen. Prestakuntza, topaketa eta hausnarketa gunea da programa hori, herritarrak nahiz erakundeetako teknikariak eta politikariak barne hartzen dituen.

Lan-lerroetako bat **HEI Txiki Vital** da, familientzako eta haurrentzako atala, eta honako hau du helburu: **komunitatean bizitzeko eta elkarrekin lan egiteko beharrezko trebetasun sozialak hobetzea**. Lau orduko 20 tailer diseinatu ziren, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat, baita bisitaldiak Udalera ere. Jarduerak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira eta ondorio horietarako aukeratutako formatzaileek ematen dituzte.

Topaketak, etorkizunerako baloreak

El Prado Atletismo Kluba da Vital Fundazioaren laguntza jaso duen erakundeetako bat. 'Topaketak, etorkizuna eraikitzeke baloreak' proiektua abiarazteko izan da laguntza hori, eta **kirol arloan praktika onak zabaltzea** du helburu. 60 minutuko hamar topaketa dira eta Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Bigarren Hezkuntzako 2. mailara arteko neska-mutil kirolariak **Iván Fernández atletarekin** elkartzen dira, baloreak eta elkarbizitza sustatzeko.

EmpleoAraba

'EmpleoAraba' Vital Fundazioak eta **SEA Arabako Enpresariak** 2016ko maiatzean abian jarritako asmo handiko ekimena da. Bere helburua Arabako industria-sektorean dagoen lan-eskaintza eta lan-eskaera bateratzea da, Arabako enpresetan dauden berehalako kon-

tratazio-beharak asetzeko. Horietako gehienek, % 45ek, industrien ekoizpen, muntaketa eta mantentze sailetan jarduten dute. Haien atzetik, % 20k, ingeniarietza eta kalitate-kontrolleko sailetan dauden beharretan.

'EmpleoAraba' elkarteak orientazio, tutorizazio eta laguntza zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen die hautagai bakoitzari. Horrez gain, berrazko prestakuntza ematen die profesional tituludunen eta lan-eskatzailleen **ezagutzak eta gaitasunak** enpresen hautaketa-prozesuetara egokitzeko.

Arabako lurraldeko enpresek behar dituzten profil profesional kualifikatuak identifikatzen dituen datu-base bat sortuta, hautagaiei **laneratzen** laguntzen zaie (orientazioa eta bitartekotza, zeharkako gaitasunen eskola, tarteko agente eskola eta abar). Programaren beste helburuetako bat nazioartean esperientzia duten Arabako talentuak berreskuratzea eta itzultzea da.

Ibilbide pertsonalizatu bat ezarri ondoren, pertsonen zenbait **prestakuntza-jardueretan** parte hartzen dute, **beraien gaitasunak hobetzeko**. Besteak beste taldeko '**Prestakuntza Pildorak**' eta '**Zeharkako Gaitasunen Eskolak**' hainbat arlotan emango diete prestakuntza,



hala nola komunikazio eraginkorra enpresan, talde-lana, produktibitatea handitzea, gaitasun komertziala edo autokritika eta erabakiak hartzea. Bestalde, **‘Tarteko Aginte Eskolak’**, profesionaleri beraien gaitasun-esparruetan ku-deaketa-jarduerarik onenak egin ahal izateko prestakuntza ematea du helburu. Horrela, erabakiak hartzean haien ekimena ere sustatuko da. Beste ekintza garrantzitsuetako bat **‘4. 0 enpresarako teknologia berrietan prestatzea’** da. Informatikaren bilakaera aztertzea da helburua eta enpresan duen eragina, eta zehazki industrietan.

4.102 curriculum inguru jaso dira lan horren ondorioz eta **920 bitartekotza** proposatu dira enpresekin. ‘EmpleoAraba’ ekimenak **805 kontratazio** lortu zituen.

Abenduaren 26an, **SEAk** eta Vital Fundazioak talentu profesionala erakartzeko abiarazitako proiektu berritzaile baten lehenengo edizioa egin zen Artium Museoan. Gaur egun Arabatik kanpo bizi diren 200 arabarrek jaso zituzten **25 enpresatatik etorritako lan eskaintzak**, sortu ziren **lurraldera itzultzeko**, Back To Araba Talent Forumaren lehenengo edizioan.

Bertaratu zirenek enpresen standak bisitatzeko aukera izan zuten eta bakante zeuden lanpostuak eskuratzeko jarraitu beharreko urratsei buruzko informazio zehatza jaso zuten. Batez ere krisi garaian, lanpostuak beste latitude batzuetan eskuratzeko, gure probintziatik kanpo joan zen talentua berreskuratzea du helburu ekimen horrek.

Hazia 23

Vital Fundazioak eta gazteen enpleguaren arloan aritzen diren gainerako tokiko eragileek Hazia 23 programaren hirugarren edizioa bultzatu dute **gazteak laneratzen** laguntzeko. Vital Fundazioaren laguntza **40.000 eurokoa** izan zen 2018an, eta laneratzea bideratutako

hezkuntzako eta ber-hezkuntzako estrategiak garatzera bideratu zen diru hori. Ekimen horrek, prestakuntzarik eta lan-esperientziarik ez duten, eta prestakuntza- edo enplegu-sistemetan sartuta ez dauden **23 urtetik beherako** langabeak lan-merkatura sartzeko neurriak bultzatzea du helburu.

Hazia 23 programan jasotzen diren ekintzek fase guztiak barne hartzen dituzte: programa honetan parte har dezaketen pertsonak identifikatzetik enpresa batek kontratatzeraino. Tartean, beste zenbait etapa daude: ebaluazio indibidualizatua egitea, laneratzeko ibilbide pertsonala diseinatzea, tutoretza lanak, zenbait prestakuntza-modulu egitea eta bekak lortzea. Prozesu hori guztia eskola egutegiarekin bat dator eta irailetik ekainera burutzen da. Guztira **20 gaztek** jaso zuten diploma egiaztagarria, lortutako prestakuntza berezia zela eta.

Bekak

Unibertsitateko Erasmus bekak

Erasmus bekak Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dagoen eta edozein unibertsitatek 2017/2018 ikasturtean zehar Europar Batasuneko Sócrates / Erasmus Programan parte hartzeko ofizialki aukeratzeko duen unibertsitateko edozein ikaslerentzat dira. Beka horietako bat lortu nahi duten unibertsitateko euskal ikasle gehienek EHUn ikasten dute.

Laguntza ekonomikoak 800 eurokoak dira hautatutako pertsonak ikasturte osoan parte hartuko badu, eta gehienez, 400 eurokoak izango dira lau eta sei hilabete bitartean egoten diren

Vital Fundazioak 220 beka baino gehiago eskaini ditu prestakuntzarako, hizkuntzak ikasteko, unibertsitate ikasketetarako, berrikuntza teknologikorako edo sortze artistikorako.

ikasleentzat. Bestalde, hileko 100 euro arteko beka bereziak ere badaude, lau hilabete baino gutxiago egongo diren ikasleentzat.

Deialdi horren barruan, **egoera ekonomiko berezian dauden gazteen** kasua ere kontuan hartzen da. Beka arruntena bikoizten duen laguntza ere jaso dezakete, 1.600 euro artekoa hain zuzen ere. Vital Fundazioak **107 beka** eman ditu orotara deialdi honetan.

Ingelesa hobetzeko beka

Unibertsitateko eta Goi-mailako Lanbide Heziketako tituludunek haien ingeles-ezagutzak hobetzeko (maila tekniko eta komertzialean bereziki) beka-deialdia da Vital Fundazioaren beste helburuetako bat.



2018ko laguntza-deialdian bi modalitate egon ziren: lehenengoan 20 beka eskaini zituen, **20.000 euro artekoak, Britainia Handian eta Irlandan hiru hilabete egoteko**. Han, ingeles-es-

koletara joateko eta lan egiteko edo lan-praktikak egiteko murgiltze-linguistiko esparru batean, hainbat esparrutan, besteak beste, finantzetan, marketinean, logistikan, giza baliabideetan, hezkuntzan, komunikabideetan edo zuzenbidean.

Bigarren modalitateak beste 20 beka eskaini zituen **100 orduko ikasturte** bat egiteko, **Hizkuntza Institutua Fundazioan** ingeles tekniko eta komertziala hobetzeko. Beka bakoitza 650 eurokoa da, eta beka hauek eskuratzeko eskatzen den gutxieneko maila B1 da. Beka hori aprobetxamenduz egiten duten ikasleek lehentasuna izango dute hurrengo deialdian atzerrian egoteko beka eskatzean.

Deusto/Egibide beka

Egibide eta Deustuko Unibertsitatearen arteko aliantza estrategikoak, Vitoria-Gasteizen 2018-2019 ikasturterako **Gratu Duala Industria Digitalean** ezartzea erabaki du, eta Araban baino ez da emango. Vital Fundazioak Deustuko Unibertsitatearen eta Egibideren aliantza estrategikoari eman dion laguntza funtsezkoa izan da profil profesional berria lortu dadin, prozesu produktiboen eraldaketa lideratzeko gai izango dena, prozesu horietan eta enpresa-estrategian teknologia eta zerbitzu digitalen erabilera sartuta.

Vital Fundazioaren Gradu Duala egiten ari diren ikasle arabarrentzako beka eta laguntza programa diru-laguntza indibiduala da eta lehenengo mailako ikasleei eskaintzen zaie. Lehenengo mailako ikasleetan fokuratzearren arrazoa honakoa da, gainerako mailetan (2., 3. eta 4. maila), ikasketa dualak direnez, enpresetan egonaldiak egingo dituzte eta ikasketa horiek egiteak dakarren kostuaren zati handia finantzatzeko aukera izango dute. Bekaren zenbatekoa familia errentaren mende egongo da eta zenbatekoa 2.000 eta 3.000 euroen artean ibiliko da.

Euskara ikasteko Ardatz Elkartea eta Udaberria Elkartea beka

Vital Fundazioak 16.300 eurokoko ekarpena egin du, ikasturtean zehar euskara ikastera bideratuak, matrikularen ordainketan laguntzeko. Aurten, 52 ikaslek lortu zuten beka. Ikastaroak **IKA Euskaltegia** eta **Udaberria Elkartean** ematen dira.

Beka horien zenbatekoa 275 € eta 320 € artekoa da.

Berrikuntza teknologikorako beka

Bere plan estrategikoko helburuetako bati jarraiki, hau da, Arabako gazteen sektorean berrikuntza zabaltzeko apustua, Vital Fundazioak beste beka-deialdi bat abiarazi zuen, berrikuntza teknologikoko proiektuak garatzeko. Egibideko Lanbide Heziketako ikasle tituludunei zuzenduta, **3.000 euroko 10 beka** ematen dira.

Beka horiek lortu ahal izateko ezinbestekoa da Egibideko campusetako batean (Arriaga, Jesus Obrero, Mendizorrotza, Molinuevo edo Nieves Cano) Goi Mailako Teknikariaren titulazioa aterata izatea, 2016/2017 edo 2017/2018 ikasturteetan.

Ekonomisten Elkargoaren beka, praktikak egiteko

Vital Fundazioak **14.000 euroko** ekarpena egin dio orotara **Ekonomisten Euskal Elkargoari** lan-praktiken 10 beka finantzatzeko, sei hilabetez, Arabako enpresetan, tituludun lizentziatu berrientzat.

Praktikez gain, bekadunek prestakuntza ikastaro bat jasotzen dute elkargoaren Arabako egoitzan bertan, 29 urtetik beherako ekonomistei laneratzea errazteko helburuz.

Beste zenbait beka

Vital Fundazioaren laguntza **Ganbera Musika-ren Lagunen Vitoria-Gasteizko Elkartera** ere iritsi zen, Arabako musika ikasleei bideratutako 5 beka hornitzeko.

‘Irudika’ Euskal Irudigileen Elkarrekin elkarrekin arabar batentzako beka bat eratzea adostu zen, formazioa jaso eta proiektu bat garatu dezan hiru hilabetez.

Ikerketarako laguntza

Ikerketa sustatzea eta talentu gazteei laguntza ematea da Vital Fundazioaren lerro eratzaileetako beste bat. Horregatik, **35.000 euro** bideratu dira ikerketa proiektuetarako, **Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU)** ezarritako hitzarmenen harira. Bakoitzak 6.000 euro jaso zituzten 5 proiektu dira eta bakoitzak 3.000 euro jaso zituzten beste 6 proiektu. ‘Zientziaren Asteari’ ematen zaion laguntza ere multzo honetan sartzen da. 1.000 ikasle baino gehiagoren parte hartzea izaten du eta 9.000 euroko ekarpena egiten zaio

Ekintzailetzaren aldeko ekimenak

Vital Fundazioak lankidetz hitzarmen bat du **Arabako Merkataritza eta Industria Ganberarekin** enpresa-ekimen berriak sustatzeko **-Ekiten-** edo sortu berri diren enpresei laguntzeko **-Finkatzen-**. Lankidetz horren xedea da enpresa-proiektu bat garatzeko erronkari arrakastaz ekiten laguntzea enpresaburuei. 2018. urtean beste 20 ekintzaileri eman zitzaizen diru-laguntza. Duela 20 urte abian jarri zenetik, *Ekiten* eta *Finkatzen* programek **10.000 ekintzaile** inguru izan dituzte tutoretzapean, eta horri esker, **2.000 enpresa** baino gehiago sortzen lagundu dute. Horietatik, **% 80** finkatu egin dira.

Beste alde batetik, Vital Fundazioak eta **Arabako Enpresaburu Gazteen Elkarteak (Aje-bask-Araba)** partekatzen dituzten helburuen artean gazte enpresaburuei laguntzen dieten eta gure probintzian enplegua sor dezaketen proiektu berriak sortzea ekartzen duten ekintzak bultzatzearena dago. Helburu horri jarraiki, lankidetz hitzarmen bat dute bi erakundeek, ekintzailetzari laguntzeko diren bi ekimen abian jartzeko. Joan den ekitaldian, guztira, **33.750 euroko** laguntzan gauzatu zen babes hori.

Aurten burutu direnak honako hauek dira: 'kultura ekintzailearen sustapena' probintziako gazte eta gizarte eragileentzat; 'Enpresen finkapena' enpresari gazteari laguntza emateko zerbitzuen bidez, kudeaketan, marketinean, Giza Baliabideetan eta abar; 'Porrotetik ikastea' enpresariekin eta ekintzaileekin egindako topaketei esker; 'Esperientziatik ikasi' 25 proto-ekintzaileentzako *mentoring* programa, SECOTen eskutik; 'Lanbide orientazioa gazte enplegurako' alde aurreko esperientziarik gabeko gazteentzat. Gainera, gazte ekintzaileen-



tzako 9 projekturi ere laguntza eman dien Vital Fundazioak. 1.250 euroko laguntza-poltsak eman dizkie.

Halaber, Vital Fundazioak lankidetz hitzarmen bat sinatu du **ASLE elkartearekin (EAEko Lan Sozietateen Enpresa Taldea)**, lan-sozietatearen izaerarekin enpresa-proiektu bat abian jarri edo horrelako proiektu batean parte hartu nahi duten Lurraldeko langabeei eta ekintzaileei laguntzeko. 2018an, Vital Fundazioak 1.250 euroko zuzeneko laguntza-poltsa bat ematen du lau enpresa-proiektu garatzeko, enpresaren lehen bi urteetan finkatzen laguntzeko helburuz.

Azkenik, ekintzailetzari laguntzeko sailaren barruan, nabarmendu behar da **'IkasEkiten, ekiten ikasten'** programa abian jarri duela **BIC Araba** zentroarekin batera. Ekimen horri esker, lurralde historikoko 15 ikastetxek, Vitoria-Gasteizko 9k, Amurrioko bik, Langraiz-Okako bik, Murgiko batek eta Aguraingo beste batek goiz bat Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroan emateko aukera izan dute, ekintzailetza garatzeko beharrezkoak diren gaitasunekin lotuta dauden gaikako tailerrak egiten: ekimena, sormena, berrikuntza, konfiantza, arazo-

ebazpena eta abar. Era berean, ekimen ekin-tzaileen sustatzaileak ere ezagutu zituzten, eta esperientziak eta kezkak partekatu zituzten. Ikasturte honetan 550 ikaslek hartu dute parte ekiten ikasteko 20 tailerretan.

Enplegua eta lurralde oreka

Lantegi Eskolak Añanako Kuadrillan

Vital Fundazioak Añanako Kuadrillarekin zuen lankidetzaz hitzarmena berritu du, **Micaela Portilla Lantegi Eskolari** jarduten jarraitzen laguntzeko. Hauek dira prestakuntza eta enplegu zentro horren helburuak: langabezian dauden gazteak lanbide batean prestatzea, zaharberri-tearen arloan, zehazki igeltserotza, muntaketa-zureria eta hargintza espezialitateetan, laneratzen laguntzea eta Fontetxan (Araba) dagoen Orgaz Dorre Jauregia eraberritzea.

Ikasleek lanerako lanbide-prestakuntza jasotzeaz gain, praktika profesionalak ere egiten dituzte (benetako obra batean lan egiten dute), praktika horiek amaitutakoan, ikasitako lanbidean modu egokian aritu daitezuten eta, hartara, laneratzea errazagoa izan dakien.

2018an, Micaela Portilla Lantegi Eskolak **Añanako Gatz Harana Berreskuratzeko Programarekin** aurrera jarraitu du.

Hauek dira Lantegi Eskolan matrikulatzeko baldintzak: 16 eta 24 urte bitartean izatea, Langabeziako Txartela izatea eta, atzeritarren kasuan, egoitza-baimena izatea. Ez da beharrezkoa Bigarren Hezkuntzako Graduatua izatea.


Lantegi Eskola garatzeko Añanako Kuadrillarekin ezarritako lankidetzaz, bat dator Vital Fundazioaren ildo estrategikoarekin. Horren bidez, arabarrei laneratzen laguntzeko prestakuntza-jarduerak sustatzen eta bultzatzen ditu, eta hezkuntza arautuaren barruan ez dauden bestelako aukerak eskaintzen ditu.

Vital Fundazioak **90.000 euroko** ekarpena egin du arautuaren barruan ez dagoen bestelako prestakuntza bat eskaintzeko, horren bidez lan-merkatuan sartzen laguntzeko eta eskualdeko ondare aberatsa berreskuratzeko.

Vital Fundazioaren laguntza lurralde orekaren aldeko beste mota batzuetako ekintza aitzindarietara ere zabaltzen da. 2018 urte honetan, Micaela Portilla Lantegi Eskolaren bitartez, bista gidatu antzeztuak dohainik egiteko programa bat abiarazi da eta **12.000 euroko** ekarpena egin du Vital Fundazioak.

Enplegu-proiektuak beste kuadrilla batzuetan

Vital Fundazioak Arabako beste kuadrilla batzuekin ere sinatu ditu lankidetzaz hitzarmenak urtean zehar, eta **10.000 euro** jaso du bakoitzak. Horren adibide bat dugu **Aguraingo Kuadrillarekin** lortutako akordioa, gehienez, 12 ikasleri, 'Altzarien eraberritzea' izeneko 100 orduko ikastaro bat emateko, sektore horretan lana dagoela egiaztatu baita. **Kanpezuko Kua-**



drillarekin sinatutako akordioa ere azpimarra-
tu behar da, beste 12 gazterentzako egin diren
‘Plataforma jasotzaile operadore’ ikastaro bi
emateko, udan ingurueta instalazioetan lan
egin dezaten, eta ‘Lehen sorospenak eta soros-
leak’ ikastaroa ere bai.

Enpleguaren aldeko ekimenak egin diren lurral-
deko beste eremu batzuetako bat **Aiarako Kua-
drilla** izan da. Horrek ere Vital Fundazioaren
laguntza izan zuen prestakuntza-ikastaroak
abian jartzeko, besteak beste arlo hauetakoak:
‘Kudeaketa fiskalari buruzko pildora’, ‘Gerrila
marketineko pildora’, ‘Nola kudeatu lan komer-
tziala’, ‘Nire zerbitzu/produktuen kostua eta
prezioa kalkulatzeko’, ‘Nire bezeroak lortzeko’ eta
‘ETE-etarako irtenbide digitalak’.

Berriarazko taldeei zuzendutako enplegu-ekimenak

SARTU-Araba elkartearen eskutik (Gaitasun
pertsona eta profesionalen garapena susta-
tzeko gizarte- eta lan-inguruetan nahiz per-
sonengan beharrezkoak diren aldaketak
sustatzen dituen elkartea da), **‘BATEKIN’ Bo-
rondatezko Gizarte Ekintza Sustatzeko Bu-
legoa** bultzatu zuen Vital Fundazioak 2016.
urtean. Zerbitzu integral eta doakoa da irabazi
asmorik gabeko erakundeentzat eta Arabako
boluntarioentzat. Euskadiko beste boluntario-
tza-agentzia batzuekin lotuta dago (Bolunta-
Bizkaian, Gizalde Gipuzkoan eta beste federa-
zio batzuk). Lehenengo urtean Arabako Bolun-
tarioen Mapa konfiguratu zen eta 2018an, **566
pertsona** artatu dira, dauden zerbitzu guztien
artean.

SARTU-Arabarekin egindako akordioak Gaz-
teak Bermatzeko Programa Operatiboa ere bul-
tzatu du, ikasten ari ez diren eta boluntarioen
esparruan edo Abegi Zerbitzuan lan egin nahi
duten gazteak lan-merkatuan txertatzeko,
enplegurik ez badute. Helburua da gizarteratze
eta laneratze prozesuetan eta gizarte arloko

bestelako informazio-eskaeretan laguntzea.
BatEkin proiektuaren webgunearen bitartez
17.314 bisita jaso ziren iaz..

Vital Fundazioaren laguntzari esker, **Merkatari-
tza eta Zerbitzu Arabako Elkartek, ‘AEnko-
mer’**, merkataritza eta zerbitzuen arloko
Arabako 30 elkarte esanguratsuenak biltzen
dituenak, prestakuntza tailerra jarri ditu
martxan, bai sektore horretan lan egin nahi
dutenentzat, bai ekintzaileentzat, bai salto-
kietako edo zerbitzuetako kudeatzaileentzat,
zenbait eginkizunetarako euren prestakuntza
hobetzeko helburuz. Vital Fundazioak **10.000
euroko** ekarpena egin die bi proiektuari, 2018an:
‘Prestakuntza programa publikoa artatzeko
komunikazio trebetasunetan’ eta ‘Enpresa
txikian giza baliabideen kudeaketan espeziali-
zatutako aholkularitza programa’.

Eco-Emprende ikastaroak

Garaion taldea irabazi asmorik gabeko erakun-
dea da, 2008an sortua eta Ozaetan kokatua.
Naturarekin, euskararekin eta sormenarekin
zerikusia duten jardura ludiko-hezkuntzakoak
egiteko etxe bat kudeatzen dute, lanbide tradi-
zionaletatik abiatuta, esaterako otzaragintza,
nekazaritza ekologikoa, usadio eta ohitura tra-
dizionalak berreskuratzea eta bio-eraikuntza.

2018an zehar, Vital Fundazioak **10.000 €** bide-
ratu ditu hainbat ikastaro finantzatzeko lagun-
tzeko, bereziki **‘Bio-eraikuntza ekintzailea: iso-
lamendu eta bero sistemak’**, enpresa-praktikak
egiteko dituen zailtasunak direla eta.

+55 prestakuntza programak

Prestakuntzaren arloan **2.024 pertsona** in-
guruk hartu dute parte Vital Fundazioak 55
urtetik gorako pertsonentzat abian jarri dituen
programetan. Ikastaroen eskaintzan hainbat
arlo barne hartzen dira, hala nola filosofia eta

historia, baina teknologia berriak ere ikasten dituzte, esaterako, informatika edo argazkilaritza digitala.

Vital Fundazioak **Esperientzia geletan** ere lankidetzan jarraitu du EHUREkin, eta 300 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

+55 PRESTAKUNTZA PROGRAMAK	2.024
TELEFONO MUGIKORRA ERABILTZEN IKASTEA	96
ESPERIENTZIA GELAK	312
HARDWARE IKASTAROAK	27
HIZKUNTZA IKASTAROAK	60
INFORMATIKA IKASTAROAK	544
TOPAKETAK LITERATURAREKIN	15
ANTZINAKO HISTORIA	180
FILOSOFIAREN HISTORIA	167
PSIKOLOGIAREN HISTORIA	76
EKONOMIARI BURUZKO TAILERRA	34
ARGAZKILARITZA DIGITALARI BURUZKO TAILERRAK	30
HISTORIA	483

1.5 Ondare eta Ingurumen arloa

Laguntza euskarari eta euskal kulturari

Arabako ikastolen eta euskararen aldeko Araba Euskaraz festa 1981. urtetik ospatzen da, dirua biltzeko eta Arabako lurraldean euskararen erabilera sustatzeko helburuz. Vital Fundazioa ia hastapenetatik hasi zen laguntza ematen, urtero lankidetzat hitzarmenak sinatuz.

2018. urtean Argantzunen izan zen **Araba Euskaraz** festa, ekainaren 17an. Fundazioaren laguntzan **-20.600 eurotik gora** festa honen aurretik egiten diren jarduerak eta **Ikastolen Federazioak** prestatutako hezkuntza, kultura eta kirol programa ere barne hartzen dira. Horrez gain, hezitzaileentzako jardunaldi pedago-



gikoak ere barne hartzen ditu hitzarmenak.

Vital Fundazioa eta bere hiru fundazioak, Idiomatas Fundazioa, Estadio Fundazioa eta Sancho el Sabio Fundazioa, beste ekimen batera ere bildu ziren, **Euskaraldira**, hain zuzen ere. Euskal Herria osoan garatu zen kanpaina hori, gure ohiturak aldatu eta hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, gure harremanak euskaraz egiteko helburuz. Proiektu horretarako 'ahobizi' eta 'belarriprest' eranskailuak diseinatu ziren. Ekimenean parte hartu zutenek zeramatzaten eranskailu horiek eta euskara hitzun edo entzule identifikatzen zituzten, hurrenez hurren.

Beste alde batetik, Fundazioak lankidetzat hitzarmena berritu du **Denon Eskolarekin** (Arabako eskola publikoetako ikasleen guraso elkartearen Federazioa), haren jarduerak programari laguntzeko.

Era berean, lankidetzat hitzarmen bat sinatu du Vital Fundazioak **Eusko Ikaskuntzarekin**,

Ekinez Planean (2016-2019) barne hartzen diren bost proiektuetako bat abian jartzeko. Zehazki, **‘Euskararen etorkizuna. Aukerak’** proiektua. Horren helburua da euskararen gizarte-errealitatearen ikuspegi bat ematen duen interpretazio-esparru bat egitea. Aurretik, 2019an argitaratuko den proiektuaren ondorioak burutu dira.

Gazteen artean euskarazko abestiak sustatzeko helburuz, Vital Fundazioak eta GEU Gasteiz Euskaldun Elkarteak lankidetzat hitzarmen bat sinatu du **Kantariren** III. edizioa egiteko, Vitoria-Gasteizen egiten den Euskararen Astearen barruan.

Vital Fundazioaren beste helburuetako bat kultura-ondarea bizirik iraunaraztea da. Helburu horri jarraiki, lankidetzat hitzarmen bat sinatu du Arabako Dantza Federazioarekin, bertako folklorea gordetzeko eta zabaltzeko. Une honetan, Araba osoko eta Vitoria-Gasteizko hogeitalde baino gehiagok osatzen dute Dantza Federazioa, 800etik gora dantzari eta 30 irakasle, orotara. Antolatzen diren ekitaldien artean **‘Araba Dantzan’** nabarmentzen da. Arabako herrietan, ekain, uztail eta irailean, bertako dantza-ikastaroak eskaintzen dituen programa da. Lankidetzat honetan, **Dantzari Egunaren** antolaketan laguntzea ere barne hartzen da, izan ere, urtero 500 dantzari inguru biltzen dira hizordu horretan.

Bertako folklorea gordetzeko eta zabaltzeko helburu berarekin, Vital Fundazioak eta **Jare Dantza Taldeak** akordio bat sinatu dute urtean zehar hainbat jarduera bultzatzeko, hala nola Umeen Euskal Jaia ekainean, eta Villamadernekoko jaia, irailean.

Gure kultura-ondarearen osagai gisa, Vital Fundazioak beste lankidetzat hitzarmen batzuk sinatu ditu erakundeekin, esaterako Arabako **Euskal Pilota** Elkartearekin, Arabako **Bertsotzale** Elkartearekin eta **Elkarte Gastronómicoen** Federazioarekin (Boilur).

Azokak

Vital Fundazioak Udalekin, Kuadrillekin eta tokiko beste erakunde batzuekin lankidetzat hitzarmenak egiten jarraitu du urtean zehar, azoken antolaketa logistikoan eta lurraldearen sustapenean laguntzeko. Horrela, Araban egindako **150 ekitalditan** edo egiturak utzi ditu (hesiak, puzgarriak, standak, megafonia, aterpeak eta abar). Bertaratutako kopuruari dagokionez, ziur asko 75.000 bisitari baino gehiago egon dira.

Vital Fundazioak laguntza ematen duen **Arabako lehen mailako sektorearekin** zerikusia duten azoken artean hauek nabarmentzen dira: Arabako Errioxako Mahats Bilketaren Festa, Gaubeako Patataren Azoka, Pobeseko Babarrunaren Azoka, Kuartangoko Perretxikoaren Azoka, Aguraingo Abere Azoka edo Rivabellosako Trufaren Nazioarteko Azoka. Gorbeiaiko Zaldiaren Erakusketa azokak, Amurrioko Txakolinaren Azokak edo Gatz Haranekoak ere aipamena merezi dute.



Vitoria-Gasteizko Gabonetako Azokaren 61. edizioa

Joan den abenduaren 20an Vital Fundazioak 2015etik antolatzen duen Gabonetako nekazaritza azoka egin zen berriro. Urtero **10.000 lagun** inguru joaten dira gastronomia eta artisautza azoka honetara, eta Lurraldean egiten diren artean ospetsuenetako bat da.

2018. urteko azokan 113 merkataria bertaratu ziren eta **138 postu** bete zituzten. Gastronomia-eskaintza zabala egin zen, eta oilategiko hegaztien ohiko erakusketa eta salmenta ere egon ziren.

Merkatu horri ematen dion laguntzaren bidez, Vital Fundazioaren helburua Araban antolatzen diren nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren laguntza ematen jarraitzea da. Izan ere, **Arabako ekoizleek** lehentasuna dute postu bat eskuratzerako orduan. Gehienbat Arabatik datoz (56 postu), baina beste leku batzuetako ekoizleak ere bertaratu ziren, hala nola Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Errioxa, Kantabria, Gaztela eta Leon, Aragoi, Katalunia, Asturias, Gaztela-Mantxa eta Frantziakoak.

Aurtengo berrikuntza handia **‘Plastikorik ez’** Vital Fundazioaren ekimenaren lehenengo edizioa izan da. Merkaturia plastikorik gabeko gune bilakatzea izan zen helburua. Bertaratu zirenen artean **oihalezko 10.000 erosketa-poltsa** banatu ziren plazako sarreretan, eta banaketa horri lotutako informazio-kanpaina ere burutu zen. Gainera, **material biodegradagarriko 30.000 poltsa** eman zituzten saltzaileek erosketekin batera, aldezturik Vital Fundazioak euren artean banatuak.

Andre Maria Zuriaren azoka

Hitzordu tradizional hau Loma Jeneralaren plazan izan zen bigarren aldiz, eta **jatorriz arabarrak diren 17 ekoizle eta artisau** bildu zituen abuztuaren 5, 6, 7 eta 8an, Andre Maria Zuriaren omenezko jaiekin batera. Ekimen hau Vital

Fundazioak lurraldeko nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreari eta artisautzari ematen dizkien ohiko laguntzan barne hartzen da.

Bioaraba

Produktu ekologiko, bizitza osasuntsu eta kontsumo arduratsuaren Bioaraba Azokaren V. edizioa azaroaren 16tik 18ra bitartean izan zen, Vitoria-Gasteizko Iradier Arena esparruan. Ekimenak Vital Fundazioaren, Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du.

Hurbileko produktu ekologikoak erosteko eta dastatzeko aukera ematen du Bioarabak hantzen gaikako eremuen bidez. Horrez gain, produktu eta zerbitzuei buruzko hitzaldi eta erakustaldietara joateko aukera ere badago. Era berean, sukaldaritza osasungarri, ekonomiko eta arduratsuaren erakustaldiak ere egiten dituzte Vitoria-Gasteizko jatetxeetako sukaldariek, eta inguruko produktu ekologikoekin egindako janariak prestatzen dituzte.

Ardoaraba

Arabako eta Euskadiko xarma turistikoetako bat bihurtu da Ardoarab azoka eta abenduko zubian burutu zen Vitoria-Gasteizen, mahastizaintzako eta ardogintzako lurralde pribilegiatu baten hiriburuan, Arabako Errioxari eta Arabako Txakolinari esker. Ardoa eta gastronomia gustukoa duten 100.000 pertsona baino gehiago bertaratu ziren. Vital Fundazioak aktiboki lagundu zuen, hirugarren aldiz, azoka honen antolaketan **Txoko Gastronomikoa** bultzatuz. Azaltzen diren dastaketak egiteko, ardoak aurkezteko, pintxoak egiteko edo haurrentzako tailerrak egiteko leku eskusiboa da. Horrez gain, **haurrentzako txoko** bat ere bada, txikiak puzgarriez eta jolasez gozatzeko. Orotara, Vital Fundazioaren ekarpena **16.000 eurora** iritsi zen.

Lurraldearen sustapena

Ardoaren kultura

Gure lurraldearen eta bertako produktuen (kasu honetan, Arabako Errioxako ardoaren) aldeko apustua egitea Vital Fundazioaren lanaren ardatzetako bat da, lurraldea sustatzeko.



Helburu horren barruan, Fundazioak lankidetzatza hitzarmen bat sinatu du, berriz ere, **Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbide Elkartearekin**, prestakuntza jarduera programa bat garatzeko. Programa horretako jarduerak foro enogastronomiko baten inguruan ardatzu dira eta sektorearekin zerikusia duten erakunde eta enpresa guztiek eman zuten laguntza eta egin zuten lan.

‘**Zuria eta Kitto**’ proiektuan ere hartzen du parte gure erakundeak, **Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideak** eta **Vitoria-Gasteizko Azoka Plazak** abiarazten duten ekimena. Arabako Errioxako ardo zuriek eta jatorrizko hiru izendapenetako txakolinak munduan bere lekua- ren bila aritzen dira, hiru eguneko azoka baten bitartez -abuztuaren 31tik irailaren 2ra arte- gastronomía eta musika elkartzen dituen.

Wine City profesionalen elkarteak, identitatea eman nahi diote Vitoria-Gasteizi Ardoaren Hiri bilakatuta. Horretarako, Vital Fundazioaren

laguntza du, **Upel Lasterketak** antolatze-ko, uz- tailaren 25ean, ardo-upelez egindako **Arku Monumentala** kokatzeko Espainia plazan, nahiz Arabako Errioxako Ardo Berriaren eta Arabako Txakolinaren 2. Jaialdia egiteko, ‘Wine Berria’. Araban egindako urteko ardo berrien balioa azpimarratzera bideratutako ekimena da eta martxoaren 23an eta 24an burutu zen.

Santa Katalinako lorategi botanikoa (Iruña Oka)

Vital Fundazioak eta **Santa Katalina Lorategi Botanikoen Lagunen Elkarteak** lankidetzatza- hitzarmen bat sinatu zuten, berriz ere, **8.000 euroko** zenbatekoan, zenbait jarduera egiteko, beraien baliabide natural, historiko eta kultu- ralak eta ondarea ezagutzera emateko. Horien artean, Santa Katalinako Lorategi Botanikoa eta hango Izar Parkea sustatu zituzten, komu- nikazio-plan baten eta dibulgaziozko ekintzen bidez, lorategi hori probintziako turismo-ba- liabide gisa ezagutzera emateko eta bere balio handia nabarmentzeko helburuz.

Gatz Haranean eremuak berreskuratzea

Vital Fundazioak eta Añanako Gatz Harana Fundazioak lankidetzatza-hitzarmen bat sinatu dute Añanako gatzagetan gatzatza ekoizteko ere- mu berriak berreskura daitezen. Zehazki, Vital Fundazioak emandako **40.000 euroko** lagun- tzaren bidez, proiektu honen asmoa da larrai- nak, putzuak, biltegiak, murrak, trabuketeak eta zurezko bilbadurak berreskuratzea La Cubi- lla izenaz ezaguna den gunean, Muera eta Vilo- ria erreken elkargunearen ekialdean. Lankide- tza hren bitartez bi helburu bete dira: batetik, Arabako Lurralde Historikoko kultura eta in- gurumen **ondarea** berreskuratzea, eta, beste- tik, **enplegua** sortzea. Izan ere, hori gauzatzeko Micaela Portilla Prestakuntza eta Enplegurako Zentroko antzinako ikasleak kontratatzen dira, ordaindutako praktiken bidez.

Gainera, aurten, Arabako gatz-ondarearen eraberritzearekin duen konpromisoa sendotu nahi izan du Vital Fundazioak, ezagutzera eman. Horretarako, **35-40 gramoko 12.000 poltsatxo gatz** atera zituen. Poltsatxoek fundazio bien logotipoak daramatzate itsatsita eta bisitariei ematen zaizkie opari.

Etxe berdeak

2015. urtean abian jarritako eta Vital Fundazioak eta Vitoria-Gasteizko Udalak abiarazitako hezkuntza-programa bat da. Beraien erabakiek eta eguneroko ohiturek ingurumenean eta gizartean duten eraginarekin kezkatuta dauden familientzat da.

50 familiak hartu zuten parte **programa horren IV. edizioan**, eta Vital Fundazioaren **20.000 euroko** ekarpena izan du. Zehaztuta izan dituzten helburuak honako hauek izan dira: %10 jaitea etxeko hondakinen ekoizpena, uraren kontsumoa %10ean murriztea, %10 jaitea energia-kontsumoa, %5,2 jaitea CO2 isurketak (Kiotoko Protokoloaren helburua), eta hauek bezalako ondorioak: familien ekonomia hobetzea, energia, garraioa eta erosketen erabilera arduratsua eginez, kalitate maila hobetzea energien, ur kontsumoaren eta hondakinen

kudeaketa hobea eginez eta tokiko kontsumoa sustatzea.

Guztira 12 prestakuntza-saio egin ziren, familientzako tailer formatuaren bitartez, 6 tailer umeentzat, 13 informazio eta sensibilizazio saio hainbat gairi buruz (Energia Aurrezkia eta Eraginkortasuna, Hondakinak, Birziklatzea, Mugikortasuna eta Garraioa, Kontsumo Arduratsua) eta 4 bisita leku interesgarrietara, esaterako, araztegi-tetara eta biokonpost plantetara.

Joan den ekitaldian, **Legutioko Udala** ere bildu zen ingurumen-ekimen honetara, beraz Etxe Berdeak probintziara zabaltzea ekarri du horrek.

Arreta etxabereei

Animalien Babeserako Vitoria-Gasteizko SOS Elkarte (APASOS), 2004an eratua, Vitoria-Gasteizko Animalien Babes Zentroan jasotako animalien biz-baldintzak hobetzea posible zela pentsatzen zuten pertsonak sortu zuten. Fundazioaren laguntza arreta hori hobetzen arazten da eta elkarte lanetan, baita animalien aurkako tratu txarrei buruz kontzientziatzeko **kanpainetarako laguntza ematean**, animalia horiek adoptatu ahal izateko azoka baten prestaketan, eta maskotekin egiten den **laguntza-programa** batean ere. Laguntza programa hori autonomia pertsonaleko zentroetan eta adinekoen egoitzetan burutzen da.

Etxabereak ez dira kezkatzen gaituzten bakarrak. Ekologistak Martxan Araba Elkarteak **5.000 euroko** ekarpena jaso du Vital Fundazio-tik, 'Basakatuari buruzko azterlana Vitoria-Gasteizen' azterlana bat burutzeko.



2. Estadio Fundazioa

Estadio Fundazioak funtsezko lana egiten du duela ia hirurogei urte kirolaren kultura garatzearen alde eta bere abonatuaren artean nahiz Gasteiztarren eta Arabarren artean jarduerak fisikoa sustatzearen alde. Bere jarduerak nagusia kirola erregulartasunez egitea bultzatzea da, eta horretarako, kirol-jarduerak, gizarte- eta kultura-jarduerak eta jolas-jarduerak sustatzen ditu. Bestalde, kirola eta bere modalitateen irakaskuntza bultzatzen, irakasten eta zabaltzen du. Azkenik, Vitoria-Gasteizen dituen instalazioak kudeatu eta mantentzen ditu, 'Estadio' izenaz ezagutzen direnak.

Kirol gune honek 40.000 m² inguruko azalera du eta estalitako nahiz estali gabeko zenbait instalazio zabal ditu. Askotariko kirol jarduerak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, eta profesiona-

lez osatutako talde osoa du, kirola ingurunerik onenean egin dezan jende guztiak, urte osoan eta hiriko leku ezin hobean.

Igerileku estaliaren eraikinaren eraberritze integrala

2018an erabiltzaileen eta abonatuaren beharrietara egokitzeko eta modernizatzeko garaia iritsi zen. Horregatik, Vital Fundazioak **igerileku estaliaren eraikinaren eraberritze integralerako ideia lehiaketa** bat deitu zuen. Deialdia irekia izan zen edonongo izen oneko profesionalentzat eta lehiaketa anonimo formatuan planteatu zen. Parte hartze handia izan zuen eta kalitate handiko proiektuak aurkeztu ziren.





Ideien aurkezpenaren ostean, bost finalista aukeratu zituen epaimahai teknikoak, eta horietatik, **aho batez atera zen irabazle 'Estadio Batua' izeneko aurreproiektua**, Londresen bizi den Euskadiko arkitektoa Jon Erraztik egina, beraz, bera arduratuko da burutze-proiektuaz eta eraberritzearen zuzendaritzaz. Epaimahaiak aho batez erabaki zuen aurreproiektu horrek erantzuna ematen ziola beharrian programari eta lehiaketaren oinarrietan ezarritako baloraziorako lau irizpideak betetzen zituela: **proposamen arkitektonikoa, bideragarritasuna eta funtzionaltasuna, eraginkortasun energetikoa eta iraunkortasuna eta bere bateragarritasuna eta loturak.**

'Estadio Batua' proiektuak orain dagoen kirol igerilekuen ur-azalera bikoiztea planteatu du, **25 metro eta sei kaleko igerileku berri** baten bidez. Halaber, irakaskuntza gunearen eraberritzea ere dakar eta orain dagoen igerilekuaren berritzea, baita **gune hidrotermal** berria egitea ere, **sauna eta hamam** izango dituen. Aldagelak eta biltegiak edo gela teknikoak ere berriztuko dira, eta **terraza eta solarium guneak gaitu** eta handituko dira, orain bananduta dauden igerileku estaliaren eta gazteen eraikinetako terrazak elkartuta.

Igerileku estaliaren eraikinaren eraberritze integral horren bidez, Estadio Fundazioak bere instalazio eta antolakuntza eredu iraunkorrean eta modernoan erreferente izaten jarraitu nahi du, gizartean kirola hedatzeko bere helburuari jarraiki.

Instalazioen barruan, eta batez ere kanpoan, Vital eta Estadio fundazioak dira Vitoria-Gasteizen eta Araban egiten diren kirol-hitzordu ugarien sustatzaile nagusiak, bai antolakuntzan, bai baliabide gutxiago duten jarduera edo erakundeen laguntzaile edo babesletzan.

Gaur egun, Estadio Fundazioak **hogei mila abonatu inguru** ditu eta asebetetze, gomendatze eta fideltasun maila oso altua dute, parte hartze maila altua antolatzen dituen jardueretan eta **urtean milioi bat sarrera inguru** metatzen ditu Cervantes ibilbidean dituen instalazioetan.

Jarduerak

Estadio Fundazioak denboraldiko nahiz udako jarduera-programa finkatzen jarraitu du urtean zehar, eta hobetzeaz gain, **beste jarduerak batzuk gehitu ditu**. 2018/19 denboraldian jarduera berri hauek sartu zituen: acrosport,

capoeira, dance familiar, defentsa pertsonala, ariketa kardio-osasuntsuak, TRX +55, HIIT, lindy hop, padela, paleta argentinarra emakumeentzat, tenisa, urban dance eta zumba strong eta 2018ko udan (abonatueta zentratuta), gainera, igeriketa ur zabalean, padelsurf zeharkaldia, online patinatzea haurrentzat, trail running emakumeentzat eta skatea.

Guztira **55 aukera baino gehiago** daude eskola, ikastaro eta saio solte gisa Estadioan eta haren inguruetan, hau da, **300 saiotik gora astean**, Atik Zra aukera ohikoenak barne hartzen dituztenak (igeriketa, patinajea, mantentzeko gimnasia, pilatesa, GAP edo spinning, besteak beste) eta Arabako kirol-eskaintzan berriagoak diren beste batzuetaraino: Antigravity (airetiko ariketa, esekita dagoen hamakan), Feldenkrais (gimnasia arina, bereziki errehabilitatzeko), mindfulness meditazioa (arreta osoa lantzeko) eta TRX funtzionala (entrenamendu funtzionala esekita). Horietako batzuk, Estadio Fundazioan baino ezin egin daitezke Euskadin.

Bestalde, hamar bat **mendi-irteera** eskaintzen ditu Fundazioak, hil bakoitzaren hirugarren larunbatetan, mendi-ibilien bidez natura-inguru-

ne hurbilena ezagutzeko, edo eguneko sei ibilaldi, urriko, azaroko, martxoko, maiatzeko eta ekaineko azken igandeetan. Ibilaldi horietan zailtasun desberdineko mendietara igoko da, eta uda gorrian, elur-erraketekin zeharkaldiak egingo dira eta eski nordikoa, elurteak aprobe txatuz.

Era berean, **kirol kultura** sustatzeko helburuari jarraiki, osasuna, ingurumen edo gizarte arlotako zikloetan antolatutako konferentzia sorta zabala egin ditu **Estadio Gelak**. Jarduera fisiko erregularra, unibertsitate bekak kirolarientzat, teknologia eta jarduera fisikoa, kirol profesionala eta elkartasuna, kirola eta genero berdintasuna, euskal kirolaren historia, kirolaren epaileak, dopina eta kirol amateurra, babesletza kirolean edo ibilbide handiak bizikletaz izan dira hitzorduetako protagonistetako batzuk.

Informazio gehiago:

www.fundacionestadio.com



3. Idiomas Fundazioa

Idiomas Fundazioa 1967. urtean sortu zen, eta bere jarduera nagusia gazteei ingelesa irakastea da, 16 urtetik beherakoei, batik bat.

50. urteurrena

Bere berrogeita hamargarren urteurrena bete zuen ikasturte honetan Idiomas Fundazioak eta, ospakizun hori dela eta, **'Idiomas live'** ere sartu zuen bere prestakuntza-programazioan. Ingeles ikasten ari diren ikasleak beren eguneroko jarduera eta egoeretan hizkuntzara hurbiltzea du helburu proposamen berri ho-

rrek, testuinguru akademikotik aterata. **Jatorrizko bertsioan azpiztituluekin egindako zinema maratoiaren** eskutik hasi zen 'Idiomas Live'. Vital Fundazioa aretoan eman ziren zinema britainiarreko hamabi film klasiko moderno, dohainik, 24 orduz jarraian, esate baterako, The Queen, Love Actually, Trainspotting, 101 Dalmata, La Naranja Mecánica, Notting Hill, Billy Elliot edo Full Monty, bestak beste.

Gainera, **urriko, azaroko eta abenduako ostiral guztietan eta 90 minutuz** 'Idiomas live' ekimenak ingelesa lantzeko aukera eman zuen, hainbat tailerren bitartez, esaterako, an-



tzerkia, eskulanak edo berrien eta artikuluen erredakzioan, 'escape room', musikari buruzko saioak edo zinema jatorrizko bertsioan edo, 'games corners' direlakoak, etxeko txikienentzako, jolasteko, abesteko, marrazteko, aldi berean ikasi eta ondo pasatzeko.

Hizkuntzen irakaskuntza

Hizkuntza Institutua Fundazioaren hezkuntza-eskaintzan ingeles eskolak dituzte, helduentzat eta zazpi urtetik aurrerako ikasleentzat, maila guztietan ematen dira eta zentroaren jardueraren ardatz nagusia dira; aleman eskolak, hamabi urtetik gorakoentzat; edo frantses eskolen kasuan, ikasleek gutxienez DBHko lehen mailan egon behar dute, txinera edo arabiera hastapen ikastaroetan bezalaxe.

Beste alde batetik, Vital Fundazioarekin lankidetzan, ingelesezko, frantsesezko, euskarazko eta alemanezko hastapen-ikastaroak ematen dira 55 urtetik gorakoentzat.

Era berean, lankidetzan horri esker, beka-deialdia ere egiten da Hizkuntza Institutua Fundazioaren egoitzan 100 orduko ikasturte bat emateko, ingeles tekniko eta komertziala hobetzeko helburuz. Beka bakoitza 550 eurokoa da, eta beka horiek lortzeko eskatzen den gutxienezko maila B1 da (egiaztatu behar da). Gaur egun, 21 ikasle daude.

1.109 matrikula egin dira, eta gelako batez besteko ikasle kopurua 14,40 da. Guztira 77 talde dira.

18-19 ikasturteko matrikulak

Adina	Matrikula kopurua	%
14 urtetik beherakoak	562	50,67
14 eta 16 urte bitartekoak	198	17,85
16 eta 18 urte bitartekoak	137	12,35
18 urtetik gorakoak	212	19,11
TOTAL	1.109	100

Idiomas Fundazioak gelak, multimedia gela, hizkuntzen laborategi digitala, liburutegia (liburuak mailegatzeko zerbitzua) eta ikasketak-gela ditu. Eskola gehienak 18:00etatik 21:00etara arteko orduetara ematen dira, astelehenetik ostiralera, eta 17:30etik 20:30era da laborategiaren orduetara.

Guztira 229 eskola-ordu ematen dira astero, asteko 2 orduko taldeetan (ikasle gazteenak), edo 3 ordukoetan gainerakoen kasuan. Asteko 2 orduko ikastaroek 67 eskola-ordu dituzte, eta ez dago mugarik hizkuntza laborategira joateko. Asteko 3 orduko ikastaroek 100 eskola-ordu dituzte, eta ez dago mugarik hizkuntza laborategira joateko.

Horrez gain, bere ikastaroei, azterketei, atzerriko egonaldiari, trukeei eta lanei buruz aholkatzen ditu Idiomas Fundazioak bere ikasleak.

Informazio gehiago:

www.fundacionidiomas.eus

4. Sancho el Sabio Fundazioa



Euskal kultura biltzen, zain- tzen eta zabaltzen

50 urte baino gehiagoko etengabeko jarduerari esker erreferentziako zentro bat sortzea lortu dute euskal kultura inprimatu historikoan eta gaur egun hura digitalki zabaltzean interesa duten ikertzaileentzat. Sancho el Sabio Fundazioaren helburuen artean euskal kultura aztertzea, biltzea, gordetzea eta zabaltzea daude. Hasiera batean, Sancho el Sabio Erakunde gisa hasi zen jardunean, 1955. urtean. Harrezkero, zenbait egoitza izan ditu eta 2009tik Betoñuko Atean dago.

Sancho el Sabio Fundazioaren dokumentu-bilduma osatzen duten funtsen artean hauek daude: inprimakiak, eskuizkribuak, material grafikoa, mapak, argazkiak eta abar, eta doku-

mentuak euskarri informatiko eta digitaletan, informazioaren teknologiaren bilakaerari esker egindakoak. Laburbilduz, deskribapen eta katalogazio lan teknikoak dira, hiru esparrutakoak: liburutegia, artxiboa eta fototeka, funts bakoitzean adituak diren langileekin.

Bilduma urtez urte handitzen da euskal argitalpenen edo euskal gaien ekoizpenarekin. Horri esker, euskal kulturaren bilakaeran interesa duten ikertzaileek edo erabiltzaileek funts paregabea duten eskura. Aurten, beste **3.258 lan eskuratu dira bibliografian**, aldizkako argitalpenen funtsa mantendu eta eguneratu egin da, **funts digitalean 372.580 orri gehiago sartu dira**. Gainera, **datu-base bibliografikoak 326.338 erreseina eskaintzen ditu** eta **datu-base digitala 12.523.931 erreferentziatara iritsi da**, on-line kontsulta daitezkeenak.

Sancho el Sabio Fundazioaren web-orria, iker-tzaileek, kuriosek, bisitariek edo euskal kultu-raren edozein arlotan interesa dutenek duela bost hamarkada baino gehiagotik gordetzen dituen funtsak ikusteko aukera ematen duen tresna da. Jatorri, tipologia eta tratamendu desberdineko funtsak bilaketa konbinatu bakar batean lotzea lortzen du. Bestalde, sof-tware berri bati esker, bilaketa hori, sarbide askeko artxibo dokumental digitalizatuak di-tuzten beste erakunde batzuen euskal kultura funtsekin lot daiteke.

Sancho el Sabio zifratzen

TITULU BERRIEN SARRERAK	3.258
MONOGRAFIAK EDO LIBURUAK	2.910
ARGITALPEN SARIATUAK	348
DATU BASE BIBLIOGRAFIKOA 12/31N	326.338
LIBURUAK	98.101
ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK	191.138
LIBURUETAKO ARTIKULUAK	17.254
MAPAK	1.958
MATERIAL GRAFIKOA	4.161
ALDIZKARIAK	13.726
DATU BASE DIGITALA 12/31N	12.523.931
BIBLIOGRAFIA ONDAREA	1.595.908
FAMILIA ARTXIBOAK	696.842
ALDIZKARIEN AURKIBIDEAK	110.167
EGUNKARIAK	8.856.545
EUSKO LEGEBILTZARRA	300.000
SNV	236.854
EUSKAL ALDIZKARIAK	694.305
FOTOTEKA	33.310
INFORMATIKOKI KATALOGATUTAKO MATERIALAK	8.175
ERREFERENTZIAK	8.175
ARTXIBOAK - ERREFERENTZIAK GUZTIRA 12/31N	53.834
2018KO IGOERA ARTXIBO ERREFERENTZIATAN	5.650
DIGITALIZAZIOA - URTEKO IGOERA	372.580
a) PRENTSA	339.736
b) ALDIZKARIEN AURKIBIDEAK	0
c) ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK	1.152
d) EUSKAL ALDIZKARIAK	0
e) FAMILIA ARTXIBOAK	24.300

f) FOTOTEKA	7.392
g) ONDARE BIBLIOGRAFIKOA	0
WEB ESTATISTIKAK	768.920
SANCHO EL SABIO WEB KATALOGOA	240.367
ARTXIBOEN KATALOGOA	186.432
POSTA, TELEFONOA ETA FAXA	12.356
WEB-ORRIA	44.580
EMD	284.947
INTRANET	238
LANGILEAK	9
PRAKTIKETAKO IKASLEAK	5
EUSKAL HERRIKO UNIBER-TSITATEA	5

Probintziara irekita dagoen zentroa

2018ko martxoan, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Sancho el Sabio Fundazioak lankidetzara hitzarmena sinatu zuten, etorkizuneko **Euskal Liburutegi Nazio-nal Digitalaren** oinarriak zehazteko helburuz. Hitzarmen horri esker lehenengo oinarritzko euskal liburutegi garaikide digitala eratuko da, eta **XX. eta XXI. mendeetako 3.000 liburu digi-tal inguru** izango ditu. Lehenengo proiektu hori oinarria izango da eta horren gainean garatuko da etorkizuneko Euskal Liburutegi Nazional Di-gitala, historian zehar hainbat arlotako euskal egileen lanak bilduko dituen asmo handiagoko proiektua.

Aurtengo gertaera berezien artean **Montoya Ortiz de Zárate familiaren artxiboa** Sancho el Sabio Fundazioari **lagatzea aipatu daiteke**. Dokumentu hori, kaparetasun egiaztatze ere-dua, familiaren etxeko fatxadako armariaren atzean aurkitu zen. 12 dokumentuk osatzen dute ziurtagiria, paperean eta pergaminon eginak eta belus gorrian josita eta neurria egindako latoizko kutxa batean babestuta. Fa-milia artxiboen proiektura bildu da dohaintza berri hori ere.

Azpimarratu beharreko beste jardura batzuk Betoñuko egoitzan egin diren erakusketak



dira. Martxoan **'Lorategiak airean / Jardines en el aire'** egin zen bertan, **Mariano Arsuaga** artista gipuzkoarraren hogeita hamar bat lan biltzen zituen erakusketa. Irailean **'Komikia, 1975-2017. Euskal komikia'** erakusketa inauguratu zen, argitalpen horien historiari egin dako ibilbidea, 1975etik gaur egun arte.

San Frantziskoko komentu desagertuaren historia, bilakaera eta gainbehera gogoratu zuen Sancho el Sabio Fundazioak, erakusketa baten bitartez. Komentu hori eraikin enblematikoenetako bat zen maila artistikoan nahiz historikoan, eta oraintsu gure hiriak galdu zituen mota horretako eraikin ugarien arteko beste bat. Erdi Aroko Araba taldeak komisariatua, San Frantzisko komentuari buruzko **erakusketa bibliografikoa eta argazkiz osatua** izan zen, XVIII. mendeko eraikina, eta XIX. mendean kuartel militarra izan zena, 1930. urtean eraitsi zen arte.

Duela urte luzeak, Sancho el Sabio Fundazioak ahalegina egiten du bere fondoak erakusteko ate irekien jardunaldien bidez, **Liburutegien Egunean edo Liburuaren Egunean**. Era berean, asteartero antolatzen da **'Gogoratzeko taillerra'**, Fundazioak dituen fondo bibliografikoak zabaltzeko sortu zen ekimena.

Beste batzuetan, Sancho el Sabio Fundazioaren fondoak Vital Fundazioaren beste gune

batzuetan erakusten dira. Horrela, Vital Fundazioaren **Luis de Ajuria aretoan** egin zen **'Álava insólita: símbolos, mitos y lugares de memoria'** liburuaren aurkezpena, Santiago de Pablo eta Virginia López de Maturanaren liburua, Sancho el Sabio eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren fruitua. **Vital Fundazioa aretoan**, bere aldetik, **'50 años sin El Trenico'** dokumentalaren emanaldia egin zen, Vitoria-Gasteizen Vasco-Navarro trenbidearen historia gogorarazteko, itxi zeneko berrogeita hamargarren urteurrena betetzeari.

Sancho el Sabio Fundazioak urtero abian jartzen dituen ekimenen arteko beste bat **Ikerketako Unibertsitate Lehiaketa** da, euskal unibertsitateetako ikasleen ikasturteko lanak saritzeko sortua. Aurten, ikerketa-lan bi saritu zituen Sancho el Sabio Fundazioak, bata **Estibalizko muinoari** buruzkoa eta bestea, **Euskal Herriaren kristautzeari** buruzkoa.

Gainera, Fundazioak **Landazuri Elkartek** ematen duen saria jaso zuen, **'2018ko saria'** hain zuzen ere, talde modalitatean, euskal kultura arloan nabarmentzen den edozein motatako jardura saritzen duena.

Informazio gehiago:
www.sanchoelsabio.eus

5. Vital Eguna

‘Vital Egunaren’ lehenengo edizioa egin zuen Vital Fundazioak maiatzaren azken aste-buruan, arabar guztiekin, lankide dituen elkar-te eta kolektibo guztiekin eta jarduten duen arlo guztietan partekatze eta harremanak estutzeko helburuz sortu zen jardunaldia.

Ostiral gauean hasita, maiatzak 25, eta igan-dera arte, maiatzak 27, Vitoria-Gasteiz kon-
zertuz, musikaz, kaleko jardueraz, kirol-jar-
dueraz, haurrentzako jardueraz, gai askotako
tailerrez edo fundazioetako ate irekien jardun-
aldiz bete zen. Herritar talde, adin eta interes
guztientzat pentsatutako proposamena, hiri-
ko bederatzi tokitan burutua. **20 jarduera bai-
no gehiago** egin ziren eta **5.600 pertsona** baino
gehiago izan ziren parte hartzaile.



Vital Eguna ostiral gauean abiarazi zen, kirolarientzat antolatu zen **‘Gaueko Martxa Solidarioa’** ibilbidearen eskutik. 8 kilometro inguru Armentia basotik, Mendi Solidarioak Elkartearen alde. Gau horretan **kontzertu bat egin zen Aihotz plazan** eta Izaroren musika bar-



nerakoia entzuteko aukera izan zen, baita ska-rock euskalduna Ze Estek! Taldeari esker.



Topaketari amaiera emateko SignoDanza saio bat eman zen (zeinu-hizkuntza eta dantzaren arteko fusioa). **Txikienentzako gun bat** ere izan zuen, hainbat jarduera eskaintzeko, hala nola 360ºko esperientzia eskaintzen zuen planetario digitala, errealitate birtualeko gincana eta magia ikuskizunak eta photocall birtuala.



Larunbatean izan zen programazioko jarduera nagusia. Europa Biltzar Jauregian **'Vital Berri-tzailearen'** inguruko jarduera guztiak burutu ziren, gizarte berrikuntza bultzatzeko eraturako topaketa. **Hitzaldiak eta tailerrak** egin ziren, gai interesgarri eta egungoei buruz, esaterako, hazkuntza pertsonala eta profesionala, *coaching*, *visual thinking* edo *crowdfunding* kanpainak elkarretearako, Teresa Perales, Carme Tena, Julian Iantzi edo Valentí Acconcia-ren eskutik.





Bien bitartea, Foruen plazan, maskota zaleek primeran pasatu zuten maskota desfilearen eskutik, APASOS, ONCE eta Bolilur-ekin elkar-lanean, hitzarmenen bidez Vital Fundazioaren laguntza jasotzen duten kolektiboak.

Larunbat arratsaldean, Arabako **emakumezkoen kirola** ikusarazten zentratu zen 'Vital Eguna', baita neska kirolariak, kirol mota desberdinak, horiek egiteko kirol klubak eta non egin daitezkeen ere. **Andre Maria Zuriaren plaza** eta inguruak izan ziren **17 kirolen erakusketen** agertokia, Arabako klubak eta federazioen partaidetzaz.

Kioskoaren eta La Floridako parkeko estatuetako argiteria pizteko jarduera ikusgarriak itxi zuen larunbat gaua. Argiteria berri horren instalazioa Vital Fundazioak hiriari egin zion oparia izan zen.

Jarduera horiekin batera **ate irekien jardunaldiak** egin ziren Kordoi Etxean eta Sancho el Sabio eta Estadio fundazioetan.

Sancho el Sabio Fundazioak era interesgarriak erakutsi zituen bere instalazioak eta jarduerak. Larunbat goiz osoan **bisitaldi gidatuak eta haurrentzako eta nagusientzako tailerrak** antolatu zituen: liburu bat sortzeko prozesua, zure izenaren esanahia edo zuhaitz genealogikoa ikertzea.

Estadio Fundazioak, bere aldetik, **17 jardueraz osatutako programa** prestatu zuen igande goizetarako, kirol jarduerak, koordinazio eta orekari buruzko tailerra edo erreanimazio kardiopulmonarra, besteak beste, baita klase irekiak ere, Body Dance, Tai Chi, Boxing edo Zumba hurbilagoetik ezagutzeko.



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Es compartir · Zurekin bat

Casa del Cordón. Cuchillería 24
01001 Vitoria-Gasteiz

www.fundacionvital.eus

